TOLOSAKO UDALA

2024IPLE0004

Akta honen osagarri bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

e8b6d5feff74a89a83261f12177e5aade854c3b5af82de90288970dad6dde22f

Lotura honetan dago: https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak

# TOLOSAKO UDALBATZAK 2024KO MARTXOAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

## 2024.03.27

Tolosako Udaletxean, 2024ko martxoaren hogeita zazpian, 17.00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Angel Martinez de Rituerto Arregui izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

**Alkate-lehendakaria:**
Angel Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)

**Bertaratutako zinegotziak:**
Estitxu Kortejarena Ugarte(EH BILDU)
Goiuri Ezeiza Arandia(EH BILDU)
Ander Figuerido Zubiria(EH BILDU)
Josune Sanz Vidal(EH BILDU)
Aitor Agirresarobe Murgi(EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazkin(EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal(EH BILDU)
Xarles Iturbe Pasaban(EAJ-PNV)
Biotza Agirre Ugalde(EAJ-PNV)
Leire Zubeldia Ugalde(EAJ-PNV)
Ainhoa Dominguez Landa(EAJ-PNV)
Iker Uson Gonzalez(EAJ-PNV)

**Ez bertaratutako zinegotziak:**
Xabier Balerdi Tolosa(EAJ-PNV)
Patxi Amantegi Zubiria(EAJ-PNV)
Jose Mª Villanueva Telleria (PSE-EE-PSOE)

**Idazkaria:**
Begoña Garmendia Vazquez

**Kontuhartzaile akzidentala:**
Paulino Alonso Eraso

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

## Eguneko gai-zerrenda

1. Akta hau onartzea:
   2024ko otsailaren 29ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Onartzea M.Z.S. udal langileak aurkeztutako bateragarritasun eskaera.
3. Onartzea Tolosako Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.

4. Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako prezioak eguneratzeko proposamena.
5 Onartzea Itxitako ekitaldiko faktura bat.
6. Onartzea Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuak emateko kontratuaren suntsiarazpen-espedientea iraungitzat jotzeko jardunbideari hasiera ematea, iraungitze hori gertatu izan ez balitz eduki bera izango luketen egintza eta izapideei eutsiz.
7. Tolosako udal ondasunen erroldako hutsen zuzenketa onartzea: Arrillaga plazaren eta haren lurpean eraikitako garajeen jabari publikoaren izaera aitortzea.
8. Berrestea alkatetza dekretua: Tolosako Udaleko Udalbatzak BPXPORT XXI, S.L.U. enpresak aurkeztutako kontuak ez onartzearen aurka emakidunak Donostiako administrazioarekiko auzien 2 zk. Epaitegiaren aurrean tarteraturiko 49/2024 errekurtso Kontentzioso-Administratibo Arruntean Udalaren defentsa egikaritzeko pertsonatzea eta abokatua izendatzea.
9. Hasierako onarpena ematea Tolosako Hezkuntza Kontseilua arautzen duen erregelamenduari.
10.Hasierko onarpena ematea Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzen duen erregelamendu berriari.
11.Hasierako onarpena ematea Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko ordenantzari.
12..Onartzea Tolosako Aldaba auzorako Gipuzkoao Ur Kontsortzioak aurkeztutako proiektuak eragindako lursailak hirigintza-arrazoiengatik nahitaez desjabetzeko prozeduran, eragindako lursail eta jabeen behin betiko zerrendaren akats zuzenketa.
13.Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. **AKTA HAU ONARTZEA:**
   **2024KO OTSAILAREN 29KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. **ONARTZEA M.Z.S. UDAL LANGILEAK AURKEZTUTAKO BATERAGARRITASUN ESKAERA.**

| | |
|---|---|
| UNITATEA | **GIZA BALIABIDEAK** |
| XEDEA | BATERAGARRITASUN ESKAERAREN ONARPENA |

**K O N T U A N   H A R T U R I K**

Lehena.- Giza Baliabide saileko teknikariak txosten teknikoa luzatu du, honakoa

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

adieraziz:

M.Z.S. udal langileak, 2024an arratsaldez, 15:30etatik aurrera, Euskal Herriko Unibertsitate Publikoko Donostiako Zuzenbide Fakultatean astean 4 orduko irakasle ordezkapen bat egiteko bateragarritasun eskaera bideratu du.

**LEGE XEDAPENAK ETA GAIAREN AZTERKETA**

Lehena.- 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, apirilaren 18koa, Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena bere 145 artikuluan xedatzen du:

> "*Toki-administrazioko funtzionarioen bateraezintasunen araubidea abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Estatuak toki-administrazioko funtzionarioei aplikatzeko ematen dituen arauetan funtzio publikorako oro har ezarritakoa da*."

Ildo beretik, 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunak arautzen dituena, bere 2.1 c) artikuluan xedatzen du lege hau aplikagarri izango zaiela adierazten du toki-korporazioen zerbitzura dauden langileei.

Bigarrena.- 53/1984 Legea, abenduaren 26koa, Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen bateraezintasunei buruzkoak ere, bateragarritasun jarduera publiko edo pribatu batean egiten den desberdintzen du; kasu honetan, jarduera publikoa hezkuntza alorrean lan egiteko eskaera egiten du.

Legeak bere 4. artikuluan jarduera publikoan aritzeko honako baldintzak eskatzen ditu:

> *"Podrá autorizarse la compatibilidad, cumplidas las restantes exigencias de esta ley, para el desempeño de un puesto de trabajo en la esfera docente como Profesor universitario asociado en régimen de dedicación no superior a la de tiempo parcial*."

Zehazki, langileak, astean 4 orduko jardunaldia egiteko bateragarritasuna eskatzen du.

Hirugarrena.- Abenduaren 26ko 53/1984 Legeak 7. artikuluan jarduera publikoan aritzeko gainerako eskakizunak zehazten ditu:

> "*1. Será requisito necesario para autorizar la compatibilidad de actividades públicas el que la cantidad total percibida por ambos puestos o actividades no*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*supere la remuneración prevista en los Presupuestos Generales del Estado para el cargo de Director General, ni supere la correspondiente al principal, estimada el régimen de dedicación ordinaria, incrementada en:*

- *Un 30 por 100, para los funcionarios del grupo A o personal de nivel equivalente.*
- *Un 35 por 100, para los funcionarios del grupo B o personal de nivel equivalente.*
- *Un 40 por 100, para los funcionarios del grupo C o personal de nivel equivalente.*
- *Un 45 por 100, para los funcionarios del grupo D o personal de nivel equivalente.*
- *Un 50 por 100, para los funcionarios del grupo E o personal de nivel equivalente.*

*La superación de estos límites, en cómputo anual, requiere en cada caso acuerdo expreso del Gobierno, órgano competente de las Comunidades Autónomas o Pleno de las Corporaciones Locales en base a razones de especial interés para el servicio.*

*2. Los servicios prestados en el segundo puesto o actividad no se computarán a efectos de trienios ni de derechos pasivos, pudiendo suspenderse la cotización a este último efecto. Las pagas extraordinarias, así como las prestaciones de carácter familiar, sólo podrán percibirse por uno de los puestos, cualquiera que sea su naturaleza."*

Kasu honetan, langileak emandako informazioaren baitan, gutxi gora behera 560,96€ gordin jasoko ditu hilean bigarren lanpostuagatik. Ikusi da, guztira, bi lanpostuengatik jasoko duen ordainsariak, batetik, ez duela Estatuko Aurrekontu Orokorretan zuzendari nagusiaren kargurako aurreikusitako ordainsaria gainditzen, eta bestetik, ez duela ordainsaria printzipala %35ean handituta lortzen den zenbatekoa gainditzen.

**PROZEDURA**

Prozedurari dagokionez, bateragarritasun eskaera onartzea edo ukatzea, abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 9. artikuluaren baitan, udalbatzari dagokio, betiere dagokion txostena jaso ondoren.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak,

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

2024ko martxoaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko bozkak:** Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**I R I Z P E N A**

**LEHENA.-** M.Z.S. udal langileari Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan, astean 4 orduz 15:30etatik aurrera, irakasle lanak egiteko bateragarritasun eskaera onartzea.

**BIGARRENA.-** Bateragarritasun baimenean onartzen diren baldintzak aldatuko balira, udalari hauen berri eman beharko dio, hauek berriro aztertu eta dagokion ebazpena eman dezan.

**HIRUGARRENA.-** Akordioa interesatuari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez

Beraz, udalbatzak, aho batez, onartu du M.Z.S. udal langileak aurkeztutako bateragarritasun eskaera.

**3. <u>ONARTZEA TOLOSAKO UDALEKO 2023-2025 DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN ALDAKETA</u>.**

| UNITATEA | **KONTUHARTZAILETZA** |
|---|---|
| XEDEA | 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea |

**I K U S I R I K**

2023-2025 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan zenbait dirulaguntza txertatzeko proposamena jaso da.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Batetik, egun indarrean dagoen “6.1.-Kluben egitura eta ohiko jarduerak” dirulaguntza lerroan, honako dirulaguntza hauek gehitzea proposatu du kirol sailak:

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1000.481.05.341.00 | Kirol taldeak | Ezohiko kirol instalazioen erabilera | 50.000 € | Lehia | 50.000 € |
| 1000.481.26.341.00 | Alpino Uzturre Elkartea | Kirol sustapena eta egituraren indartzea | 5.000 € | Izenduna | 10.000 € |

Bestetik, gizarte zerbitzuetako dirulaguntzen atalean ondorengo dirulaguntza lerro hau sortzeko proposamena jaso da:

<u>Dirulaguntza lerroa:</u> 1.9. Premiazko laguntza humanitarioa

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Gizarte zerbitzuak. |
| Sektore hartzaileak | Aurreikusi gabeko gertaera natural, istripu edo gatazken ondorioz sortutako premia larriei erantzuteko eta oinarrizko laguntza humanitarioa bideratzeko erakunde, herriko elkarte edo herritar-taldeak, beti ere, modu kolektiboan antolatutako ekintza bideratu nahi denean. |
| Helburuak | Aurreikusi gabeko gertaera natural, istripu edo gatazken ondorioz sortutako egoera larrietan Udalaren ekarpena bideratzea, bertako biztanleek jasaten dituzten muturreko egoerei aurre egin ahal izateko oinarrizko laguntza humanitarioa bermatzeko ahaleginean. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Erakunde, herriko elkarte eta herritar-taldeen bidelagun izatea gizartean sentsibilizazioa eta erantzun azkarra sustatzekorakoan, eta laguntza hori bideratzeko ekarpen-ekonomikoa egitea. |
| Egikaritze epea | 2024-2025 Katastrofe edo hondamendi egoera bakoitzean aztertuko da eta bideratuko da dagokion dirulaguntza kopurua. |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzazioa funts propioekin egingo da. |
| Ekintza Plana | Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza zuzenei dagokien tramiteak jarraituko dira. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Dirulaguntza behar bezala zuritu beharko du erakunde hartzaileak, horretarako laguntza emateko erabakian zehazten dena zehatz-mehatz betez. |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0500.491.10.231.00 | Hainbat | Premiazko Laguntza Humanitarioa | 4.500€ | Zuzena | 9.000 |

**KONTUAN HARTURIK**

**Lehena.-**Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.artikuluan adierazten den moduan, Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten edozein erakundek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte horiek aplikatzearekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, horiek lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Dirulaguntza bakoitzaren oinarri arautzaileek dirulaguntzen plan estrategikoari egingo diote erreferentzia, eta adieraziko dute nola laguntzen duten helburuak lortzen; bestela, arrazoitu egin beharko da zergatik den beharrezkoa dirulaguntza berria ezartzea, Planean aurreikusi ez bada ere, eta nola eragiten dion hori betetzeari.

**Bigarrena.-**Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Hirugarrena.-**Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

**Laugarrena.-**Kontuan edukita jasotako proposamenak 2024 urtean zehar ematea proposatzen diren dirulaguntzak direla, beharrezkoa litzateke 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzea.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko martxoaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

> **Aldeko bozkak**: Jose Mª Villanueva Telleria, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Beraz, aho batez, honako hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**Lehena.-**"6.1.-Kluben egitura eta ohiko jarduerak" dirulaguntza lerroan, honako dirulaguntza hauek gehitzea:

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1000.481.05.341.00 | Kirol taldeak | Ezohiko kirol instalazioen erabilera | 50.000 € | Lehia | 50.000 € |
| 1000.481.26.341.00 | Alpino Uzturre Elkartea | Kirol sustapena eta egituraren indartzea | 5.000 € | Izenduna | 10.000 € |

Eta aldaketa horiek txertatu ondoren lerroa honela uztea:

<u>Dirulaguntza lerroa:</u> 6.1.- Kluben egitura eta ohiko jarduerak

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Kirola eta jarduera fisikoa |
| Sektore hartzaileak | Irabazi asmorik gabeko kirol-taldeak eta klubak. |
| Helburuak | Tolosako kirol-taldeek eta klubek dirulaguntzak zuzenean eskatzeko duten aukera arautzea eta laguntza horien kontzesioa, eta haien egiturak indartu eta garatzearekin batera, kirola eta jarduera fisikoa sustatzea herritarrengan. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Bizi ohitura osasungarriak eta herritar aktiboak, kohesio soziala kirolaren bidez. |
| Egikaritze epea | Zehaztu gabe. |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziazioa funts propioekin egiten da. |
| Ekintza Plana | Batzuk norgehiagoka bidez emango dira eta besteak, berriz, zuzenean.<br>Norgehiagoka ematen direnen kasuan, udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko dirulaguntza gisa. Laguntzaren zati bat aurreratzea aurreikusten da eta dirulaguntza Udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea.<br>Zuzenean ematen direnen kasuan, hitzarmena bidez gauzatuko dira. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Besteak beste:<br>- Kirolari lizentziak<br>- Teknikarien titulazioak.<br>- Lehiaketa maila.<br>- Zuzendaritzen osaketa.<br>- Eskola kirolarekin hitzarmenak.<br>- Beste laguntza iturriak.<br>Genero ikuspegia denetan txertatzen da. |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 1000.481.01.341.00 | KIROL TALDEAK | 1. Eranskina. Kirol taldeen egitura | 18.000 € | Norgehiagoka | 54.000€ |
| 1000.481.18.341.00 | ORIAKO TXIRRIND. ESKOLA | Kirol taldeen egitura | 16.000 € | Izenduna | 48.000 € |
| 1000.481.15.341.00 | Igeriketa taldea IKT | Kirol taldeen egitura | 15.000 € | Izenduna | 45.000 € |
| 1000.481.16.341.00 | BEOTIBAR C.D. | Kirol taldeen egitura | 6.000 € | Izenduna | 18.000 € |
| 1000.481.17.341.00 | TAKE | Kirol taldeen egitura | 20.000 € | Izenduna | 60.000 € |
| 1000.481.19.341.00 | C.D.IGARONDO URPEKOAK | Kirol taldeen egitura | 6.000 € | Izenduna | 18.000 € |
| 1000.481.20.341.00 | OARGI ELKARTEA | Kirol taldeen egitura | 14.000 € | Izenduna | 42.000 € |
| 1000.481.21.341.00 | IRRISTAKA TALDEA | Kirol taldeen egitura | 6.000 € | Izenduna | 18.000 € |
| 1000.481.22.341.00 | TOLOBOLEI | Kirol taldeen egitura | 4.000 € | Izenduna | 12.000 € |
| 1000.481.23.341.00 | OREKA-TOLOSA | Kirol taldeen egitura | 1.800 € | Izenduna | 5.400 € |
| 1000.481.25.341.00 | SOROA MEMORIALA | Ohiko jarduera | 2.000 € | Izenduna | 6.000 € |
| 1000.481.24.341.00 | KIROLAGUNAK | Ohiko jarduera | 3.500 € | Izenduna | 10.500 € |
| 1000.481.05.341.00 | Kirol taldeak | Ezohiko kirol instalazioen erabilera | 50.000 € | Lehia | 50.000 € |
| 1000.481.26.341.00 | Alpino Uzturre Elkartea | Kirol sustapena eta egituraren indartzea | 5.000 € | Izenduna | 10.000 € |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

**Bigarrena.-**Premiazko laguntza humanitarioen 1.9 dirulaguntza lerroa gehitzea.

Dirulaguntza lerroa: 1.9. Premiazko laguntza humanitarioa

| | |
|---|---|
| Eskumen arloa | Gizarte zerbitzuak. |
| Sektore hartzaileak | Aurreikusi gabeko gertaera natural, istripu edo gatazken ondorioz sortutako premia larriei erantzuteko eta oinarrizko laguntza humanitarioa bideratzeko erakunde, herriko elkarte edo herritar-taldeak, beti ere, modu kolektiboan antolatutako ekintza bideratu nahi denean. |
| Helburuak | Aurreikusi gabeko gertaera natural, istripu edo gatazken ondorioz sortutako egoera larrietan Udalaren ekarpena bideratzea, bertako biztanleek jasaten dituzten muturreko egoerei aurre egin ahal izateko oinarrizko laguntza humanitarioa bermatzeko ahaleginean. |
| Lortu nahi diren ondorioak | Erakunde, herriko elkarte eta herritar-taldeen bidelagun izatea gizartean sentsibilizazioa eta erantzun azkarra sustatzekorakoan, eta laguntza hori bideratzeko ekarpen-ekonomikoa egitea. |
| Egikaritze epea | 2024-2025 Katastrofe edo hondamendi egoera bakoitzean aztertuko da eta bideratuko da dagokion dirulaguntza kopurua. |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantzazioa funts propioekin egingo da. |
| Ekintza Plana | Tolosako Udalaren eta bere erakunde publikoen dirulaguntzen ordenantza orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza zuzenei dagokien tramiteak jarraituko dira. |
| Jarraipena eta ebaluazioa | Dirulaguntza behar bezala zuritu beharko du erakunde hartzaileak, horretarako laguntza emateko erabakian zehazten dena zehatz-mehatz betez. |

| PARTIDA | ONURADUNA | AZALPENA | KOPURUA | MOTA | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|---|---|---|---|---|---|
| 0500.491.10.231.00 | Hainbat | Premiazko Laguntza Humanitarioa | 4.500€ | Zuzena | 9.000 |

**Hirugarrena.-** Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez

Beraz, udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Udaleko 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.

**4. <u>ONARTZEA UZTURRE ASISTENTZIA GUNEAK AURKEZTUTAKO PREZIOAK EGUNERATZEKO PROPOSAMENA</u>.**

| | |
|---|---|
| **UNITATEA** | KONTUHARTZAILETZA ETA DIRUZAINTZA |
| XEDEA | UZTURRE ASISTENTZIA GUNEAK ESKAINTZEN DITUEN PREZIOEN EGUNERAKETA |

**IKUSIRIK**

2024ko otsailaren 16anGizarte Zerbitzuak Uzturre asistentzia guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak eguneratzeko txostena egiten du, ondoren hau esaten du hitzez hitz:

“ 2024ko otsailaren 9ko datarekin eta 2357 zenbakiarekin aurkeztu du RESIDENCIA SAN *COSME Y SAN DAMIAN SL-k (B20611471) Uzturre Asistentzia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen prezioak eguneratzeko eskaera Tolosako Udalaren erregistroan.*

*Kontuan izan behar da, Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita hiruko martxoaren bian, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, erabaki zuela Tolosako Alondegi plazan zentro gerontologikoa eta aparkalekua, eguneko zentroa eta adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuak egiteko eta ustiatzeko emakidaren kontratuan, Uzturre Asistentzia Gunean eskaintzen diren zerbitzuen prezioen onarpena eguneratzeko erabiliko den irizpidea finkatzea (2021COBR0001). Hain zuzen ere, honela zehaztu zen irizpide hori:*

> *<<Bigarrena.- Onartzea Uzturre Asistentzia Gunean eskaintzen diren zerbitzuen prezioen onarpena eguneratzeko erabiliko den adierazlea honakoa izatea:*
>
> *Euskadiko KPIaren urteko akumulatua, urtarrilean argitaratzen dena. Ondorioz, hurrengo urteetan prezioen eguneratzea urtero egingo da, lehen hiruhilekoan, eta erabakia Ohiko*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*Osoko Bilkuran onartu ondorengo hilabetearen lehen egunetik aplikatuko du Uzturre Asistentzia Guneak. Alegia, ondorengo urteetan, apirilaren 1ean hasiko dira aplikatzen prezio berriak.>>*

*Horrela bada, aztertu da Uzturre Asistentzia Guneak egindako proposamena eta egiaztatu da prezioak eguneratzeko erabilitako adierazlea Euskadiko KPIaren urteko akumulatua dela (%3,10).*

*Era berean, Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Sailak proposatu du berriro txertatzea prezioen zerrendan Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzuen prezioak, hain zuzen ere, egoitza zerbitzuarenak, eguneko zerbitzuarenak, eta nahasmendu mentalaren unitateko zerbitzuarenak. Jabetu gara, 2023ko prezioak eguneratzerakoan zerbitzu horiei lotutako prezioak ez zirela jaso, baina emakidaren jatorrizko kontratuan jasotzen da zerbitzu horietan modu pribatuan eskaintzen diren zerbitzuen prezio muga: plaza pribatuen prezioa izango da Aldundiak itundutako prezioari %10a erantsita, eta hori errespetatzen dela egiaztatu behar da.*

*Guzti hori kontuan izan du emakidadunak zerbitzuen zerrenda aurkezterakoan, eta, gainera, Aldundiarekin itundutako plazen erregimen ekonomikoa zehazten duen kontratu programaren 3.eraskina aurkeztu dute, beharrezko egiaztapenak egiteko aukera emanez.Era berean, gaineratu dute 2024ko eguneraketa ez duela egin oraindik Aldundiak, eta, ezin izan dutela ziurtatu noiz egingo ote den eguneraketa hori.*

*Beraz, Gizarte Zerbitzuen eta Osasunaren Saileko arduraduna naizen honek ondokoa* ***proposatzen dut:***

*Lehenengoa .- Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako prezioak* eguneratzeko proposamena, zeinaren bidez 2024rako prezioak zehazten dituen.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

| UZTURRE ASISTENTZIA GUNEA. ZERBITZUEN PREZIOAK EGUNERATZEA. | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| COMPLEJO ASISTENCIAL UZTURRE. ACTUALIZACION DE PRECIOS DE SERVICIOS. | | | | | |
| **TOLOSAKO UDALA /** AYUNTAMIENTO DE TOLOSA | | | | | |
| | | | | | |
| **TARIFAS DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA** | **BEZ/IVA** | | | **AÑO 2023** | **AÑO 2024** |
| | | | | | |
| **1. EGOITZA PLAZAK /** PLAZAS RESIDENCIALES | | | | | |
| **Autonomo itundua**/Autónomo concertada | 4% | | | 72,61.€/día | 72,61.€/día |
| **Mendekoa itundua**/ Dependiente concertada | 4% | | | 88,04.€/día | 88,04.€/día |
| **Mendekotasun haundikoa itundua**/ Gran Depen | 4% | | | 110,28.€/día | 110,28.€/día |
| **Psikogeriatriko itundua**/ Psicogeriátrico concert | 4% | | | 117,83.€/día | 117,83.€/día |
| **Autonomoa pribatua**/ Autónomo privada | 4% | | | 79,87.€/día | **79,87.€/día** |
| **Mendekoa pribatua**/ Dependiente privada | 4% | | | 96,84.€/día | **96,84.€/día** |
| **Mendekotasun haundikoa pribatua**/Gran Deper | 4% | | | 111,00.€/día | **116,00.€/día** |
| | | | | | |
| **2.- BURU NAHASMENDUAREN UNITATEA** / UNIDAD TRASTORNO MENTAL | | | | | |
| Egonaldi Itundua /plaza concertada | 4% | | | 134,87.€/día | 134,87.€/día |
| | | | | | |
| **3.- EGUNEKO ZENTRUA** / CENTRO DE DÍA | | | | | |
| **Itundutako laneguna**/ día laborable concertada | 4% | | | 57,26.€/día | 57,26.€/día |
| **Itundutako Jai-eguna**/ festivo y f/s concertada | 4% | | | 64,98.€/día | 64,98.€/día |
| **Lanegun pribatua**/ día laborable privada | 4% | | | 50.€/día | **50.€/día** |
| **Jai-egun pribatua**/ festivo y f/s privada | 4% | | | 50.€/día | **50.€/día** |
| **Itundutako laneguneko garraioa**/ Transporte día laborable concertado | 4% | | | 18,74.€/día | 18,74.€/día |
| **Itundutako jai-eguneko garraioa**/ Transporte día festivo o f/s concertado | 4% | | | 21,56.€/día | 21,56.€/día |
| **Lenegun pribatuko garraioa**/ Transporte día laborable privado | 4% | | | 0 | **0** |
| **Jaiegun pribatuko garraioa**/ Transporte día festivo o f/s privado | 4% | | | 0 | **0** |
| | | | | | |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

| TARIFAS AYUNTAMIENTO DE TOLOSA | | | 2022 | 2023 | 2024 |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | IPC PAIS VASCO | IPC PAIS VASCO |
| | | | | 5,40% | 3,10% |
| **4.- ETXEBIZITZAK** /APARTAMENTOS | | | | | |
| **Norberaren arropa garbitzeko zerbitzua / Servicio de limpieza de ropa personal** | %10 | €/mes | 94,80 | 99,92 | **103,02** |
| **Apartamentua garbitzeko zerbitzua [1] /** Servicio de limpieza de apartamento[1] | %10 | €/mes | 189,60 | 199,84 | **206,03** |
| | | | | | |
| **Zainketa pertsonalen zerbitzua lanegunetan/** Servicio cuidados personales laborables | %10 | €/hora | 23,91 | 25,20 | **25,98** |
| **Zainketa pertsonales zerbitzua jaiegunetan /** Servicio cuidados personales festivo-f/s | %10 | €/hora | 28,81 | 30,36 | **31,30** |
| **Etxebizitzaren alokairua/** Alquiler apartamento | **%10** | €/mes | 596,50 | 628,71 | **648,20** |
| | | | | | |
| **5.- ETXEBIZITZA KOMUNITARIOA /** VIVIENDA COMUNITARIA | | | | | |
| **Alojamentu plaza okupatuan- eguna [4]/** Alojamiento plaza ocupada-día[4] | %10 | €/día | 21,85 | 23,03 | **23,74** |
| **Alojamentu plaza okupatuan- hilabetea/** Alojamiento plaza ocupada-mes | **%10** | €/mes | 664,56 | 700,44 | **722,16** |
| **Alojamentu plaza hutsean- eguna /**Alojamiento plaza vacía-día | %10 | €/día | 10,92 | 11,51 | **11,87** |
| **Alojamentu plaza hutsean- hilabetea/** Alojamiento plaza vacía-mes | %10 | €/mes | 332,28 | 350,22 | **361,08** |
| **Manutentzioa-eguna** / Manutención-día | %10 | €/día | 11,98 | 12,62 | **13,02** |
| **Manutentzioa-hilabetea** / Manutención-mes | %10 | €/mes | 364,99 | 384,70 | **396,62** |
| | | | | | |
| **6.- ERABILERA ANITZEKO LOKALAK /** LOCALES POLIVALENTES | | | | | |
| **Hileko alokairua/** Alquiler mensual | **%10** | €/mes | 230,67 | 243,13 | **250,67** |
| | | | | | |
| **7.- 60 URTETIK GORAKOENTZAKO JANTOKI SOZIALA [5]/** COMEDOR SOCIAL MAYORES DE 60 AÑOS[5] | | | | | |
| **Janaria lanegunetan/** Comida laborable | %10 | € | 7,97 | 8,40 | **8,66** |
| **Janaria jaiegun edo asteburuetan/** Comida festivo o fin de semana (f/s) | %10 | € | 9,92 | 10,45 | **10,78** |
| **Afaria lanegunetan/** Cena laborable | %10 | € | 6,63 | 6,98 | **7,20** |
| **Afaria jaiegun edo asteburuetan/** Cena festivo o fin de semana (f/s) | %10 | € | 8,30 | 8,75 | **9,02** |
| **Dieta partikularizatua** / Dieta particularizada | | Según dieta | | | |
| | | | | | |
| **8.- 60 URTETIK BEHERAKOENTZAKO JANTOKI SOZIALA [6]/** COMEDOR SOCIAL MENORES DE 60 AÑOS[6] | | | | | |
| **Janaria lanegunetan/** Comida laborable | %10 | € | 11,92 | 12,57 | **12,96** |
| **Janaria jaiegun edo asteburuetan/** Comida festivo o fin de semana (f/s) | %10 | € | 13,93 | 14,68 | **15,13** |
| **Afaria lanegunetan/** Cena laborable | %10 | € | 9,92 | 10,45 | **10,78** |
| **Afaria jaiegun edo asteburuetan/** Cena festivo o fin de semana (f/s) | %10 | € | 11,65 | 12,27 | **12,65** |
| | | | | | |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **9.- BESTE ZERBITZU BATZUK/** OTROS SERVICIOS | | | | | |
| **A.- FISIOTERAPEUTA[7]** | | | | | |
| **Zerbitzua**/ Servicio | %4 | € | 22,49 | 23,71 | **24,44** |
| | | | | | |
| **B.- PODOLOGÍA[8]** | | | | | |
| **1. kontsulta**/ 1ª Consulta | %4 | € | 12,49 | 13,16 | **13,57** |
| **Kiropedia Kontsulta/** Consulta de quiropedia/consulta | %4 | € | 12,49 | 13,16 | **13,57** |
| **Sendaketa podologikoa**/ Cura podológica/consulta | %4 | € | 13,93 | 14,68 | **15,13** |
| **Errehabilitazio odolgabea azazkal haragitua/kons.**/ Rehabilitación incruenta uña encarnada/cons. | %4 | € | 93,39 | 98,44 | **101,49** |
| **Azkazal haragitua/kontsulta**/ Uña encarnada/consulta | %4 | € | 46,72 | 49,25 | **50,77** |
| **Ultzerak/kontsulta/** Ulceraciones/consulta | %4 | € | 27,86 | 29,36 | **30,27** |
| **Ultzera sendaketak/konts/** Curas | %4 | € | 13,94 | 14,69 | **15,15** |
| | | | | | |
| **C.- ILE- APAINKETA /** PELUQUERÍA | | | | | |
| **Gizonezkoen ilea moztea /** Corte pelo varones | %21 | € | 9,92 | 10,45 | **10,78** |
| **Emakumezkoen ilea moztea/** Corte de pelo mujeres | %21 | € | 11,70 | 12,33 | **12,71** |
| **Tindua**/ Tinte | %21 | € | 26,98 | 28,44 | **29,32** |
| **Ile-kizkurtze iraunkorra**/ Rizado permanente | %21 | € | 28,42 | 29,95 | **30,88** |
| | | | | | |
| **10.- EGUNEKO ARRETA ZENTROA/** CENTRO DE ATENCIÓN DIURNA | | | | | |
| | | | | | |
| **A modalitatearen "Egunero saioak" saio bakoitza/** Cada sesión de la modalidad A "Sesiones diarias" | %10 | €/día | 125,00 | 131,75 | **135,83** |
| **B modalitatearen "Astean bi saio" saio bakoitza/** Cada sesión de la modalidad B "Dos sesiones semanales" | %10 | €/día | 130,00 | 137,02 | **141,27** |
| **C modalitatearen "Astean saio bat (zerbitzu deszentralizatua)"** / Cada sesión de la modalidad C "Una sesión semanal (servicio descentralizado)" | %10 | €/día | 150,00 | 158,10 | **163,00** |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **9.- BESTE ZERBITZU BATZUK/** OTROS SERVICIOS | | | | | |
| **A.- FISIOTERAPEUTA[7]** | | | | | |
| **Zerbitzua**/ Servicio | %4 | € | 22,49 | 23,71 | **24,44** |
| | | | | | |
| **B.- PODOLOGÍA[8]** | | | | | |
| **1. kontsulta**/ 1ª Consulta | %4 | € | 12,49 | 13,16 | **13,57** |
| **Kiropedia Kontsulta/** Consulta de quiropedia/consulta | %4 | € | 12,49 | 13,16 | **13,57** |
| **Sendaketa podologikoa**/ Cura podológica/consulta | %4 | € | 13,93 | 14,68 | **15,13** |
| **Errehabilitazio odolgabea azazkal haragitua/kons.**/ Rehabilitación incruenta uña encarnada/cons. | %4 | € | 93,39 | 98,44 | **101,49** |
| **Azkazal haragitua/kontsulta**/ Uña encarnada/consulta | %4 | € | 46,72 | 49,25 | **50,77** |
| **Ultzerak/kontsulta/** Ulceraciones/consulta | %4 | € | 27,86 | 29,36 | **30,27** |
| **Ultzera sendaketak/konts/** Curas | %4 | € | 13,94 | 14,69 | **15,15** |
| | | | | | |
| **C.- ILE- APAINKETA /** PELUQUERÍA | | | | | |
| **Gizonezkoen ilea moztea /** Corte pelo varones | %21 | € | 9,92 | 10,45 | **10,78** |
| **Emakumezkoen ilea moztea/** Corte de pelo mujeres | %21 | € | 11,70 | 12,33 | **12,71** |
| **Tindua**/ Tinte | %21 | € | 26,98 | 28,44 | **29,32** |
| **Ile-kizkurtze iraunkorra**/ Rizado permanente | %21 | € | 28,42 | 29,95 | **30,88** |
| | | | | | |
| **10.- EGUNEKO ARRETA ZENTROA/** CENTRO DE ATENCIÓN DIURNA | | | | | |
| | | | | | |
| **A modalitatearen "Egunero saioak" saio bakoitza/** Cada sesión de la modalidad A "Sesiones diarias" | %10 | €/día | 125,00 | 131,75 | **135,83** |
| **B modalitatearen "Astean bi saio" saio bakoitza/** Cada sesión de la modalidad B "Dos sesiones semanales" | %10 | €/día | 130,00 | 137,02 | **141,27** |
| **C modalitatearen "Astean saio bat (zerbitzu deszentralizatua)"** / Cada sesión de la modalidad C "Una sesión semanal (servicio descentralizado)" | %10 | €/día | 150,00 | 158,10 | **163,00** |

*Bigarrena.- Kontuhartzailetza Sailari proposatzea prezio horiek onartzeko dagokion espedientea izapidetzeko, 2024ko apirilaren 1a baino lehen ebatzi dadin prezioen eguneraketa, eta data horretatik aurrera aplikatu ditzan Uzturre Asistentzia Guneak eguneratutako prezioak.*

*Dagokion lekuan jasoa gera dadin, sinatzen dut Tolosan, 2024ko otsailaren 16an"*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Kontuhartzailetza sailean Euskadiko KPIaren urteko akumulatua egiaztatu da: 2023ko abenduaren 31n % 3,10

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko martxoaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen.

Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

> **Aldeko bozkak:** Kristina Pelaez Errazkin, Josune Sanz Vidal, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa eta Jose Mª Villanueva Telleria.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

LEHENA Onartzea Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako prezioak eguneratzeko proposamena, zeinaren bidez 2024rako prezioak zehazten dituen.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez

Beraz, udalbatzak, aho batez, onartu du Uzturre Asistentzia Guneak aurkeztutako prezioak eguneratzeko proposamena.

## 5 ONARTZEA ITXITAKO EKITALDIKO FAKTURA BAT.

| | |
|---|---|
| UNITATEA | **KONTUHARTZAILETZA** |
| XEDEA | Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena |

**I K U S I R I K**

2024ko otsailaren 22an jarraian zehazten den faktura jaso zen eta 2022 ekitaldiko faktura data du, ondorengo taulan ikusten den moduan:

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

| HARRERA DATA | FRA. DATA | HORNITZAILEA | FRA. ZK. | KONTZEPTUA | KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2024/02/22 | 2022/05/30 | TOLOSAKO HODEIERTZ ABESBATZA | 05-2022 | Musikerrian parte hartzea | 800,00 € |

Aipatutako fakturak dagokion sailaren oniritzia jaso zuen 2024ko martxoaren 14an.

**K O N T U A N   H A R T U R I K**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin.

Aipatutako 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez.

2023ko abenduaren 31an goran aipatutako fakturari dagozkion obligazioak onartu gabe zeuden eta 2024ko aurrekontutik onartuko dira.

Faktura hori onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Lan-esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko martxoaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko bozkak**: Jose Mª Villanueva Telleria, Biotxa Agirre Ugalde, Ainhoa Dominguez Landa, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte, Josune Sanz Vidal eta Kristina Pelaez Errazkin.

Beraz, aho batez, honako hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**I R I Z P E N A**

Itxitako ekitaldiko faktura hau onartzea:

| HARRERA DATA | FRA. DATA | HORNITZAILEA | FRA. ZK. | KONTZEPTUA | KOPURUA |
|---|---|---|---|---|---|
| 2024/02/22 | 2022/05/30 | TOLOSAKO HODEIERTZ ABESBATZA | 05-2022 | Musikerrian parte hartzea | 800,00 € |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez

Beraz, udalbatzak, aho batez, onartu du itxitako ekitaldiko faktura bat.

**6. <u>ONARTZEA TOLOSAKO UDAL KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUAREN SUNTSIARAZPEN-ESPEDIENTEA IRAUNGITZAT JOTZEKO JARDUNBIDEARI HASIERA EMATEA, IRAUNGITZE HORI GERTATU IZAN EZ BALITZ EDUKI BERA IZANGO LUKETEN EGINTZA ETA IZAPIDEEI EUTSIZ</u>.**

| | |
|---|---|
| UNITATEA | IDAZKARITZA |
| XEDEA | TOLOSAKO UDAL KIROL INSTALAZIOEN KUDEAKETA INTEGRALERAKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUAREN SUNTSIARAZPEN-ESPEDIENTEA IRAUNGITZAT JOTZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA ONARTZEA, IRAUNGITZE HORI GERTATU IZAN EZ BALITZ EDUKI BERA IZANGO LUKETEN EGINTZA ETA IZAPIDEEI EUTSIZ. |

**I.- <u>IDENTIFIKAZIO DATUAK</u>**

| | |
|---|---|
| Kontratuaren xedea | Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua |
| Unitate sustatzailea | Kirolak Saila |
| Espedientea | 2021CSER0002 - 2023EJEC0014 |

**II.- <u>AURREKARIAK</u>**

<u>Lehena.</u>- 2021eko otsailaren 5ean Europar batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian (DO/S S25 60045-2021-ES) argitaratu zen lizitazioaren aurretiazko iragarkia.

<u>Bigarrena.-</u> Tolosako Udaleko Kirol Saileko buruak 2021ko irailaren 7an egindako txostenean, aipatutako xedea zuen zerbitzu emakida-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Hirugarrena.- 2021eko irailaren 30ean Ohiko Osoko Bilkurak, besteak beste, Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuaren espedientea onartu zuen eta hasiera eman zitzaion lizitazioari.

Laugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) eta KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresek aurkeztu zituzten beraien eskaintzak.

Bosgarrena.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2022ko otsailaren 8an kontratazio-mahaiak hau proposatu zion kontratazio-organoari: BPXPORT XXI, S.L.U. enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, ezaugarri nagusi hauekin:

- Epea: hamar urte kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita.
- urteko kanona: 120.000 euro.

Administrazio-emakidek eta -baimenek ez dute BEZik ordaindu behar, hargatik eragotzi gabe ITPk eta EJDk (kostu bidezko ondare-eskualdaketen kontzeptua) zergapetzea. Bestalde, enpresa emakidadunak partikularrari emandako zerbitzua BEZari lotuta egongo da, eta ez BEZa ordaintzetik salbuetsita.

Seigarrena.- Aurrekoa aintzat hartuta, 2022ko otsailaren 23an, udalbatzak onartu zuen BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresari adjudikatzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratua, urteko kanon honekin: 120.000euro.

Zazpigarrena.- Adjudikazio ebazpena lizitatzaile eta hautagai guztiei legearen arabera jakinarazi eta gero, KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresak kontratazio-arloko errekurtso berezi bat jarri zuen ebazpenaren kontra.

Zortzigarrena.- Horiek horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak, 2022ko uztailaren 5eko 116/2022 (EB 2022/050) Ebazpenaren bidez, aipatutako errekurtso hori ezetsi eta esleipen prozeduraren etendura kentzea erabaki zuen. Horrenbestez, KIROLZER, S.L. (B31603996) enpresari jakinarazi zitzaion Tolosako Udalarentzat zerbitzuak emateko azken eguna 2022ko uztailaren 31 izango zela eta, halaber, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresa kontratista berriari jakinarazi zitzaion 2022ko abuztuaren 1ean formalizatuko dela dagokion kontratua eta egun horretatik aurrera hasi beharko duela Tolosako Udalarentzat lanean.

Bederatzigarrena.- 2022ko irailaren 1ean formalizatu zen Tolosako Udalaren eta BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresaren artean zegokion kontratua.

Hamargarrena.- Udalbatzak, 2023 azaroaren 14an, aparteko osoko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: Tolosako Udalaren kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzua emateko kontratua suntsiarazteko jardunbideari hasiera ematea eta bai emakidadunadi, baita erakunde abal-emaileari ere, entzunaldi izapidetzea ematea.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Hamaikagarrena.- 2023ko abenduaren 4an sarrera izan zuen udal-erregistroan, 14907-2023 zenbakiarekin, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak aurkeztutako alegazioa. Horiek guztiak 2023EJEC0014 espedientean daude jasota eta horiei egiten zaie erreferentzia zuzena beharrezkoak ez diren errepikamenak sahiestearren.

Hamabigarrena.- Udalbatzak, 2024ko otsailaren 29an, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen: "O*nartzea Tolosako udal kirol-instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida kontratuaren espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoari helaraztea, eta espedientea ebazteko gehieneko epea etetea".*

Hamahirugarrena.- Horiek horrela, 2024ko martxoaren 4an argitaratu da, 2024ko urtarrilaren 29ko datarekin, Auzitegi Gorenak emandako STS 422/2024 sententzia. Horrek, aurrerago esango den bezala, eragin zuzena du espediente honetan.

## III.- ZUZENBIDEKO OINARRIAK

### 1.- Herri Administrazioaren ahalmenak

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 190. artikuluan xedatzen ditu Herri Administrazioaren ahalmenak administrazio-kontratuetan. Horrela, kontratazio-organoak du administrazio-kontratuak interpretatzeko ahalmena. Bestalde 191. artikuluan ahalmen horiek aplikatzeko prozedura ezartzen du Legeak; horien artean, kontratistari entzunaldia:

*Subsección 2.ª Prerrogativas de la Administración Pública en los contratos administrativos*

*Artículo 190. Enumeración.*

*Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la presente Ley, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta.*

*Igualmente, el órgano de contratación ostenta las facultades de inspección de las actividades desarrolladas por los contratistas durante la ejecución del contrato, en los términos y con los límites establecidos en la presente Ley para cada tipo de contrato. En ningún caso dichas facultades de inspección podrán implicar un derecho general del órgano de contratación a inspeccionar las instalaciones, oficinas y demás emplazamientos en los que el contratista desarrolle sus actividades, salvo que tales emplazamientos y sus condiciones técnicas sean determinantes para el desarrollo de las prestaciones objeto del contrato. En tal caso, el órgano de contratación deberá justificarlo de forma expresa y detallada en el expediente administrativo.*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*Artículo 191. Procedimiento de ejercicio.*
*1. En los procedimientos que se instruyan para la adopción de acuerdos relativos a las prerrogativas establecidas en el artículo anterior, deberá darse audiencia al contratista.*
*...*
*3. No obstante lo anterior, será preceptivo el **dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma** respectiva en los casos y respecto de los contratos que se indican a continuación:*
*a) La interpretación, nulidad y resolución de los contratos, **cuando se formule oposición por parte del contratista.***
*b) Las modificaciones de los contratos cuando no estuvieran previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares y su cuantía, aislada o conjuntamente, sea superior a un 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido, y su precio sea igual o superior a 6.000.000 de euros.*
*c) Las reclamaciones dirigidas a la Administración con fundamento en la responsabilidad contractual en que esta pudiera haber incurrido, en los casos en que las indemnizaciones reclamadas sean de cuantía igual o superior a 50.000 euros. Esta cuantía se podrá rebajar por la normativa de la correspondiente Comunidad Autónoma.*

Beraz, aurrekoa kontuan hartuz, BPXPORT XXI, S.L.U. (B20901716) enpresak ebazpen-proposamenaren aurkako alegazioa aurkeztu zuenez, **nahitaezkoa da Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.**

**2.- Ebazteko gehienezko epea etetea.**

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 22.1.d) artikuluan hau xedatzen du:

*Artículo 22. Suspensión del plazo máximo para resolver.*
*1. El transcurso del plazo máximo legal para resolver un procedimiento y notificar la resolución se podrá suspender en los siguientes casos:*
*d) Cuando se soliciten informes preceptivos a un órgano de la misma o distinta Administración, por el tiempo que medie entre la petición, que deberá comunicarse a los interesados, y la recepción del informe, que igualmente deberá ser comunicada a los mismos. Este plazo de suspensión no podrá exceder en ningún caso de tres meses. En caso de no recibirse el informe en el plazo indicado, proseguirá el procedimiento*

Beraz, kasu honetan eta arestian azaldutakoagatik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena nahitaezkoa zenez, ebazteko gehieneko epea eteteko baldintzak ematen ziren.

**3.- Auzitegi Gorenaren 422/2024 Epaia**

Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 212.8 artikuluan hau xedatzen du:

*Artículo 212. Aplicación de las causas de resolución.*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*8. Los expedientes de resolución contractual deberán ser instruidos y resueltos en el plazo máximo de ocho meses.*

Bestalde, 39/2015 Legeak, Herri-administrazioen administrazio prozedura erkidearenak hau zehazten du 21. artikuluan:

*Artículo 21. Obligación de resolver.*

*1. La Administración está obligada a dictar resolución expresa y a notificarla en todos los procedimientos cualquiera que sea su forma de iniciación.*

*En los casos de prescripción, renuncia del derecho, caducidad del procedimiento o desistimiento de la solicitud, así como de desaparición sobrevenida del objeto del procedimiento, la resolución consistirá en la declaración de la circunstancia que concurra en cada caso, con indicación de los hechos producidos y las normas aplicables.*

*Se exceptúan de la obligación a que se refiere el párrafo primero, los supuestos de terminación del procedimiento por pacto o convenio, así como los procedimientos relativos al ejercicio de derechos sometidos únicamente al deber de declaración responsable o comunicación a la Administración.*

***2. El plazo máximo en el que debe notificarse la resolución expresa será el fijado por la norma reguladora del correspondiente procedimiento****.*

***Este plazo no podrá exceder de seis meses salvo que una norma con rango de Ley establezca uno mayor o así venga previsto en el Derecho de la Unión Europea.***

***3. Cuando las normas reguladoras de los procedimientos no fijen el plazo máximo, éste será de tres meses.*** *Este plazo y los previstos en el apartado anterior se contarán:*

*a) En los procedimientos iniciados de oficio, desde la fecha del acuerdo de iniciación.*

*b) En los iniciados a solicitud del interesado, desde la fecha en que la solicitud haya tenido entrada en el registro electrónico de la Administración u Organismo competente para su tramitación.*

Beraz, ikus daitekeen bezala, talka egiten dute bi legeek; batek 8 hilabetetan ezartzen baitu ebazteko epea eta besteak 3 hilabetetan. Horrek ondorio zuzena du 39/2015 Legearen 25. artikuluan xedatutakoarekin:

*Artículo 25. Falta de resolución expresa en procedimientos iniciados de oficio.*

*1. En los procedimientos iniciados de oficio, el vencimiento del plazo máximo establecido sin que se haya dictado y notificado resolución expresa no exime a la Administración del cumplimiento de la obligación legal de resolver, produciendo los siguientes efectos:*

*a) En el caso de procedimientos de los que pudiera derivarse el reconocimiento o, en su caso, la constitución de derechos u otras situaciones jurídicas favorables, los interesados que hubieren comparecido podrán entender desestimadas sus pretensiones por silencio administrativo.*

*b) En los procedimientos en que la Administración ejercite potestades sancionadoras o, en general, de intervención, susceptibles de producir efectos desfavorables o de*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*gravamen, se producirá la caducidad. En estos casos, la resolución que declare la caducidad ordenará el archivo de las actuaciones, con los efectos previstos en el artículo 95.*
*2. En los supuestos en los que el procedimiento se hubiera paralizado por causa imputable al interesado, se interrumpirá el cómputo del plazo para resolver y notificar la resolución.*

Horiek horrela, 2021eko martxoaren 18ko Konstituzio Auzitegiaren 68/2021 Epaiak adierazi zuen,SPKLren 212. artikuluaren 8. idatz-zati hori ez zetorrela bat eskumenen konstituzio-ordenarekin.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 77/2022 Irizpenean, Barakaldoko Udalean suntsiarazi beharreko kontratu bati buruz, hau iritzi zuen:

*11. Finalmente, en orden al plazo para acordar la resolución del contrato, el artículo 212.8 de la LCSP establece que los expedientes de resolución contractual deberán ser instruidos y resueltos en el plazo máximo de ocho meses, para lo cual el Ayuntamiento dispone de plazo más que suficiente.*

*3.- Hágase saber a dicha Administración, que la resolución que dicte acordando remitir el expediente, deberá notificarla en el plazo de cinco días a cuantos aparezcan como interesados en él, emplazándoles para que puedan personarse como demandados en este recurso en el plazo de NUEVE días. La notificación debe practicarse con arreglo a lo dispuesto en la Ley que regule el Procedimiento Administrativo Común (artículo 49.1 LJCA).*

*4.- Solicitese del Servicio de Traducción de Donostia la traducción al castellano del folio 1 del escrito de recurso y de los documentos aportados con el recurso como anexo 3 y anexo 4.*

*HIRUGARRENA.- Tolosako Udaleko idazkariak txosten juridikoa egin duela 2024ko martxoaren 15ean, eta honakoa dio: Tolosako udal kirol instalazioen kudeaketa integralerako zerbitzuen emakida-kontratuan emakidadunak ustiapen kontuan aurkeztutako datuak ez onartzearen osoko bilkuraren erabakia izan da errekurritu dena, eta udalak epaitegiaren eskaera bete beharra du.*

***K O N T U A N   H A R T U R I K***

*LEHENA.- Ondorengo hau dela prozedura honetan aplikatu beharreko araudia:*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena (aurrerantzean, 7/1985 Legea).*

*29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, 29/1998 Legea).*

*39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean, 35/2015 Legea).*

*BIGARRENA.- 7/1985 Legeko 21.1. k) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta indarreko legeriak emandako eskumenak baliatuz,* **larrialdi-kasuetan***, osoko bilkuraren eskumeneko gaietan ere Alkateari dagokiola akzio judizialak eta administratiboak gauzatzea eta udala defendatzea bere eskumeneko gaietan, baita beste organo baten esku utzi dituenean ere. Horrez gain, osokoak berretsi dezan, Alkateak horren berri eman beharko duela osoko bilkurak hurrengo lehenengo bilkura egiten duenean.*

*Aipatutako guztia aintzat hartuta eta honi buruz egindako txosten juridikoa kontuan izanda, alkate honek honako hau*

***E B A Z T E N   D U***

***LEHENA.-*** *Tolosako Udala pertsonatzea, JAVIER CIFUENTES prokuradoreak BPXPORT XXI SLU-ren izenean eta ordezkaritzan hasi duten prozedura arrunteko arauen bidez izapidetzen ari den administrazioarekiko auzi-errekurtsoan.*

***BIGARRENA.-*** *AINHOA KINTANA MARTINEZ prokuradorea eta IÑAKI CAMPO ESNAOLA abokatua izendatzea Tolosako Udalaren defentsarako eta, hori jakinaraztea izendatuei.*

***HIRUGARRENA.-*** *Dei egitea BANCO DE SABADELL, S.A.-ri (NIF A08000143) aipatutako errekurtsoan hirugarren interesdun gisa agertzen baita.*

***LAUGARRENA.-*** *Ohartaraztea ebazpen hau sinatu eta hurrengo bost egunen barruan jakinaraziko zaiela erabakia hirugarren interesdun gisa agertzen diren guztiei, eta jakinarazpena jaso eta bederatzi eguneko epea emango zaiela demandatu gisa pertsonatzeko 29/1998 Legearen 49. artikuluaren arabera.*

***BOSGARRENA.-*** *Errekeritutako Osoko Bilkuraren erabakia bideratu zuen espedientea euskarri elektronikoan igortzea epaitegira.*

***SEIGARRENA.-*** *Alkateak, erabaki honen berria ematea Osoko Bilkurari, azken honek hurrengo lehenengo bilkura egiten duenean.*

*Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.*

*Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.*

*Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.*

*Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.*

***Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.***

| Jarduneko alkatea | Udal idazkaria |
|---|---|
| Ander Figuerido Zubiria | Begoña Garmendia Vazquez |

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez

Beraz, udalbatzak, aho batez, onartu du berrestea alkatetza dekretua: Tolosako Udaleko Udalbatzak BPXPORT XXI, S.L.U. enpresak aurkeztutako kontuak ez onartzearen aurka emakidunak Donostiako administrazioarekiko auzien 2 zk. Epaitegiaren aurrean tarteraturiko 49/2024 errekurtso Kontentzioso-Administratibo Arruntean Udalaren defentsa egikaritzeko pertsonatzea eta abokatua izendatzea.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

9. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO HEZKUNTZA KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUARI.**

| | |
|---|---|
| UNITATEA | **EUSKARA ETA HEZKUNTZA** |
| XEDEA | **TOLOSAKO HEZKUNTZA KONTSEILUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA** |

**I K U S I R I K**

LEHENA.- 2024ko urtarrilaren 15eko probidentziaren bidez, espediente bat hastea xedatu zuela Tolosako alkate-udalburuak, xede honekin: Tolosako Hezkuntza Kontseiluari buruzko arau-ordenantza egitea. Legez ezarritako aurretiazko informazio publikoko epean ez zen jaso proposamenari buruzko ekarpenik.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2024ko otsailaren 22an egindako txostenarekin, erregelamenduaren proposamena egin zuela. Azaldu zuenez, 17/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarenak, hezkuntza-kontseiluak sortzeko aukera ematen die toki-erakundeei, eta Tolosako Udalak egoki ikusi du organo hori sortzea. Helburu nagusia da hezkuntzan lankidetza sustatzea.

**K O N T U A N   H A R T U R I K**

LEHENA.- Txosten juridikoa igorri dela 2024ko otsailaren 29an, eta oinarri juridikoei buruz honako hau dioela:

*17/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarenak, hezkuntza-kontseiluak sortzeko aukera eman die toki-erakundeei. Zehazki, 60. artikuluak arautzen ditu hezkuntza-kontseiluei buruzkoak. Honako hau dio artikulu horren 2. puntuak, kontseiluen xedeei dagokienez: «Kontuan hartuta udaleko hezkuntza-kontseiluen premisa nagusia —alegia, herritarrak heztea erantzukizun partekatua dela—, gune instituzional horien helburua izango da hezkuntza-proiektu komunitarioak taxutzea eta bultzatzea, baliabide publikoen erabileran sinergiak sortuz eta ikasleen ongizatera eta garapenera bideratutako ekintzak gauzatuz, erregelamendu bidez ezartzen diren eskudantzien arabera». Legeak zehazten du kontseiluei kontsulta egingo zaiela eduki batzuei buruz; besteak beste, ikasle-segregazioa saihesteko neurriei buruz eta ikastetxeei eragiten dieten udal-jarduerei buruz.*

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2024ko otsailaren 22an egindako txostenean, ontzat jo duela proposamena hizkuntza-politikaren ikuspegitik.

HIRUGARRENA.- Berdintasun-teknikariak, 2024ko martxoaren 5ean egindako txostenean, erregelamendu-proposamenari egokitzapen batzuk egiteko eskatu duela; besteak beste, Kontseiluaren zereginetan berdintasunarekin lotutako jarduera gehiago

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

sartzea, eta batzorde iraunkorrean eta lantaldeetan presentzia orekatuaren xedea jartzea.

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, organo honi dagokio onespena ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko martxoaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Aitor Agirresarobe, Goiuri Ezeiza, Aitzol Gartzia, Esti Kortejarena, Iker Uson, Leire Zubeldia eta Jose Mari Villanueva.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

**LEHENA.-** Hasierako onarpena ematea Tolosako Hezkuntza Kontseilua arautzen duen erregelamenduari, eranskinean azaltzen den eran.

**BIGARRENA.-** Erregelamendu hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkez zitzaten. Era berean, entzunaldia ematea inplikatutako eragileei.

**HIRUGARRENA.-**Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako udaletxeko iragarki-taulan eta Tolosako Udalaren webgunean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez

Beraz, udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman dio Tolosako Hezkuntza Kontseilua arautzen duen erregelamenduari.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

**10.<u>HASIERKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO UDALEKO EUSKARAREN AHOLKU KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDU BERRIARI.</u>**

| | |
|---|---|
| UNITATEA | **EUSKARA ETA HEZKUNTZA** |
| XEDEA | **EUSKARAREN AHOLKU KONTSEILUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA ALDATZEA** |

**I K U S I R I K**

LEHENA.- 2023ko abenduaren 19ko probidentziaren bidez, espediente bat hastea xedatu zuela Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, xede honekin: Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko erregelamendua aldatzea. Legez ezarritako aurretiazko informazio publikoko epean ez zen jaso proposamenari buruzko ekarpenik.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2024ko otsailaren 5ean eginiko txostenarekin, erregelamendua aldatzeko proposamena egin zuela, horretarako arrazoiak azalduz; besteak beste, disfuntzio batzuk nabari zirela Kontseiluaren osaerari eta bileren maiztasunari dagokionez, areago Tolosako Udalak Hezkuntza Kontseilua sortzeko asmoa zuela ikusirik. Horrenbestez, eta oinarri gisara harturik parte-hartzearen, sinplifikazioaren eta efikaziaren printzipioak, erregelamendua aldatzea proposatu zuen. Bidenabar, erregelamenduaren edukian txukunketa batzuk egitea ere proposatu zuen.

**K O N T U A N   H A R T U R I K**

LEHENA.- Txosten juridikoa igorri dela 2024ko otsailaren 28an, eta oinarri juridikoei buruz honako hau dioela:

*Autonomia Estatutua da hizkuntza-normalizazioa ordenatzen duen arau juridikoa, eta haren abiapuntua da, hain zuzen, hizkuntza bien berdintasun-estatusa ez dela guztiz berdina. Hortaz, normalizazioaren helburua da hizkuntza bien arteko erabateko berdintasuna lortzeko baldintzak sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideak bermatzeko.*

*Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluetan bide ematen zaie botere publikoei euskara susta dezaten.*

*Eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen bidez, euskara toki-erakundeetan sustatzeko neurriak ezartzen ditu. Besteak beste, 6. eta 7. artikuluetan toki-erakundeei hizkuntza-autonomia zabala aitortzen zaie, eta, 17. artikuluan hizkuntza-normalizazioari lotutako eskumen propioei dagozkienak ezartzen ditu. Honela dio 17.1 26 apartatuak: «Udalerrien eskumen propioak: 1-lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: 26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*xedatutakoa gorabehera». Era berean, Lege honek, bere 7.artikuluan, "Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez" atalean ondorengoa dio, bere 2.apartatuan: «Era berean, Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, bere lurralde eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz».*

*Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea garatzeko 2019ko azaroaren 19ko Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko dekretua garatu zen, non 59. artikuluan bereziki aipatzen den Euskara Plangintza-tresnak eragile eta kolektibo inplikatuekin hitzartuta egin behar direla. Beti ere, parte-hartzearen, sinplifikazioaren eta efikaziaren printzipioak kontuan hartuta.*

*Horren oinarriak Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria eta Euskadiren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6.2 eta 10.4 artikuluetan ezarritako eskumenak dira.*

*Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bere Zioen Azalpenean, IV apartatuan honela dio: «Bistakoa da tokiko politikaren kalitate instituzionala hobetu beharra dagoela udal-gobernuek beren legitimitatea indar dezaten, zerbitzu-zorro iraunkor eta efizientea garatuz. Izan ere, udalak dira herritarrek arazoak konpontzeko jotzen duten lehendabiziko atea, eta udalen legitimazio instituzionalaren oinarria da, neurri handi batean, herritarren beharrei erantzun egokia ematea eta herritarrei bizi-kalitate egokia eskaintzea, eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuta; horien artean, gainera, hizkuntza-eskubideak».*

*Hala islatzen da legeak toki-harremanetan kultura eta hizkuntza eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde. Horregatik, euskara babestu eta normalizatzeko lana Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aitzindari izatea prozesu batean non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazio desiratua eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erauziz.*

*Toki-agintarien jarduerak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaskarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan — karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon eta indarrean dago gure ordenamendu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsia izan ondoren—, non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen ezen «hizkuntza erregionalaren edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hiztunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna sustatzera zuzenduta daudenak eta beraien egoera berezia kontuan izatea*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*bilatzen dutenak, hori ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hiztunekiko diskriminazio-egintzatzat».*

*Azken finean, lege honek bilatzen du euskal toki-erakundeei erabateko toki-autonomia bermatzea modu efektiboan esku har dezaten beren auzotarren interes eta asmoei eragiten dieten gainetan muga bakarra izanik errespetatzea eraginkortasunaren, efizientziaren eta administrazio onaren printzipioak eta betiere, mendeturik aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko arautegi aplikagarriari, udal autogobernuko eredu garatuenekin koherentzian jokatuz eta 1985eko urriaren 15eko Toki Autonomiari buruzko Europako Kartaren espirituarekin eta printzipioarekin bat etorriz, karta hori indarrean baitago gure ordenamendu juridikoan 1988ko urtarrilaren 20an berretsi izan ondoren. Eta hori guztia Toki Autonomiari buruzko Europako karta lehentasunezko iturri bat delako toki-araubideari buruzko legeen integraziorako eta interpretaziorako.*

BIGARRENA.- Berdintasun-teknikariak, 2024ko martxoaren 5ean egindako txostenean, erregelamendu-proposamenari egokitzapen batzuk egiteko eskatu zuela; zehazki, 7.2 artikuluan, Batzorde Iraunkorrari buruzkoan, sexu bien presentzia orekatuari buruzko aipamen bat sartzea, eta bereizketa eragiten duten elkarteek ezin parte hartu ahal izatea.

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, organo honi dagokio onespena ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko martxoaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Aitor Agirresarobe, Goiuri Ezeiza, Aitzol Gartzia, Esti Kortejarena, Iker Uson, Leire Zubeldia eta Jose Mari Villanueva.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzen duen erregelamendu berriari hasierako onarpena ematea, eranskinean azaltzen den eran.

**BIGARRENA.-** Erregelamendu hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkez zitzaten. Era berean, entzunaldia ematea Euskararen Aholku Kontseilua osatuko duten

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

eragileei: Galtzaundi Euskara Taldeari, *Tolosaldeko Ataria* hedabideari, 28 Kanala hedabideari, Samaniego Herri Ikastetxeari, Orixe Institutuari, Laskorain ikastolari eta Herrikide ikastetxeari, baita Udalerri Euskaldunen Mankomunitateari ere.

**HIRUGARRENA.-**Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako udaletxeko iragarki-taulan eta Tolosako Udalaren webgunean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez

Beraz, udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman dio Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzen duen erregelamendu berriari.

11. **HASIERAKO ONARPENA EMATEA ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZARI.**

| | |
|---|---|
| UNITATEA | **EUSKARA ETA HEZKUNTZA** |
| XEDEA | **ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZA** |

**I K U S I R I K**

LEHENA.- 2023ko azaroaren 29ko probidentziaren bidez, espediente bat hastea xedatu zuela Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatuak, honako xede honekin: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioari arautzeko Ordenantza egitea. Legez ezarritako aurretiazko informazio publikoko epean ez zen jaso proposamenari buruzko ekarpenik.

BIGARRENA.- Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, 2024ko urtarrilaren 12an eginiko txostenarekin, ordenantza onartzeko proposamena egin zuela. Besteak beste, azaldu zuen Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea lege-betekizuna dela Udalarentzat, hala zehazten baitu 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak. Udala ari da ebaluazio horiek egiten, baina komenigarria litzateke nola egin hobeto arautzea udal-ordenantza batekin. UEMAko udalak ari dira ordenantzak onartzen.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

## K O N T U A N   H A R T U R I K

LEHENA.- Txosten juridikoa igorri dela 2024ko otsailaren 22an, eta oinarri juridikoei buruz honako hau dioela:

*Autonomia Estatutua da hizkuntza-normalizazioa ordenatzen duen arau juridikoa, eta haren abiapuntua da, hain zuzen, hizkuntza bien berdintasun-estatusa ez dela guztiz berdina. Hortaz, normalizazioaren helburua da hizkuntza bien arteko erabateko berdintasuna lortzeko baldintzak sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren eskubideak bermatzeko.*

*Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 23., 25., 26. eta 27. artikuluetan bide ematen zaie botere publikoei euskara susta dezaten.*

*Eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen bidez, euskara toki-erakundeetan sustatzeko neurriak ezartzen ditu. Besteak beste, 6. eta 7. artikuluetan toki-erakundeei hizkuntza-autonomia zabala aitortzen zaie, eta, 17. artikuluan hizkuntza-normalizazioari lotutako eskumen propioei dagozkienak ezartzen ditu. Honela dio bere 17.1 26 apartatuak: "Udalerrien eskumen propioak: 1-lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: 26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. artikuluan xedatutakoa gorabehera". Era berean, Lege honek, bere 7.artikuluan "Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez" atalean ondorengoa dio, bere 2. apartatuan:*

*"Era berean, Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, bere lurralde eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz".*

*Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea garatzeko 2019ko azaroaren 19ko Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko dekretu garatu zen, non 59. artikuluan bereziki aipatzen den Euskara Plangintza-tresnak eragile eta kolektibo inplikatuekin hitzartuta egin behar direla. Beti ere, parte-hartzearen, sinplifikazioaren eta efikaziaren printzipioak kontuan hartuta.*

*Horren oinarriak Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria eta Euskadiren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6.2 eta 10.4 artikuluetan ezarritako eskumenak dira.*

*Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko entitateei aplikagarria zaien Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bere Zioen Azalpenean, bere IV apartatuan honela dio: "Bistakoa da tokiko politikaren kalitate instituzionala hobetu beharra dagoela udal-gobernuek bere legitimitatea indar dezaten, zerbitzu-zorro iraunkor eta efizientea garatuz. Izan ere, udalak dira herritarrek arazoak konpontzeko jotzen duten*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*lehendabiziko atea, eta udalaren legitimazio instituzionalaren oinarria da, neurri handi batean, herritarren beharrei erantzun egokia ematea eta herritarrei bizi kalitate egokia eskaintzea, eskubide guztiak baliatzeko aukera bermatuta; horien artean, gainera, hizkuntza eskubideak".*

*Hala islatzen da legeak toki-harremanetan kultura eta hizkuntza eredu propio baten alde egin duen aukera garbian ere, apustu sendoa egiten baitu euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde. Horregatik, euskara babestu eta normalizatzeko lana Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aitzindari izatea prozesu batean non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazio desiratua eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erauziz.*

*Toki-agintarien jarduerak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza Erregionalen edo Gutxituen Europako kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan-karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon eta indarrean dago gure ordenamendu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsi izan ondoren ,-non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen ezen "hizkuntza erregionalaren edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hiztunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna sustatzera zuzenduta daudenak eta beraien egoera berezia kontuan izatea bilatzen dutenak , hori ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hiztunekiko diskriminazio-egintzatzat.*

*Azken finean, lege honek bilatzen du euskal toki-erakundeei erabateko toki-autonomia bermatzea modu efektiboan esku har dezaten beren auzotarren interes eta asmoei eragiten dieten gainetan muga bakarra izanik errespetatzea eraginkortasunaren, efizientziaren eta administrazio onaren printzipioak eta betiere, mendeturik aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko arautegi aplikagarriari, udal autogobernuko eredu garatuenekin koherentzian jokatuz eta 1985eko urriaren 15eko Toki Autonomiari buruzko Europako Kartaren espirituarekin eta printzipioarekin bat etorriz, karta hori indarrean baitago gure ordenamendu juridikoan 1988ko urtarrilaren 20an berretsi izan ondoren. Eta hori guztia Toki Autonomiari buruzko Europako karta lehentasunezko iturri bat delako toki-araubideari buruzko legeen integraziorako eta interpretaziorako.*

*Eragin linguistikoaren ebaluazioaren beharrari buruz:*

*- 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, honako hau zehazten du 7.7. artikuluan: «Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira».*

*- 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen*

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak. Zioen azalpenean argi adierazten du hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak izaera irekia daukala, eta izaera hori arrazoizkoa dela, bai administrazio-jardueraren sinplifikazio-printzipioaren ikuspegitik, bai hizkuntza-politikako tresna gisa izan behar duen efikaziagatik. Hau zehazten du ondoren: «… gai honetan ere udal bakoitzari tarte zabala ematen zaio, hizkuntza-normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu dezan, baina beti gutxieneko irizpide batzuk betez. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak udalei aukera aski handia ematen die egoera malgutasunez aztertu eta baloratzeko, halako eran non sistema malgu bat eskaintzen baitzaie udalei, planifikatzeko eta programatzeko garaian hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren abantailez balia daitezen».*

BIGARRENA.- Berdintasun-teknikariak, 2024ko martxoaren 15ean egindako txostenean, eskatu zuela egokitzapen batzuk egitea erregelamendu-proposamenari; besteak beste, ELE Batzordearen osaeran berdintasun-legeari buruzko aipamena txertatzea, azterlanak egitean ahal denean datuak sexuaren arabera kalkulatzea, eta ebaluazioan sortutako dokumentuetan hizkera ez-sexista erabiltzea. Proposamenak kontuan hartu dira testuan.

HIRUGARRENA.- Hasierako ordenantza-proposamenean, eranskinean, akats bat ikusi dela; izan ere, arnasgune izendatutako auzoen artean Santa Lutzia falta da. Zuzendu da.

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2 d) artikuluan xedatutakoaren arabera, organo honi dagokio onespena ematea: Udalbatza.

Tolosako Udaleko Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko martxoaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Aitor Agirresarobe, Goiuri Ezeiza, Aitzol Gartzia, Esti Kortejarena, Iker Uson, Leire Zubeldia eta Jose Mari Villanueva.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

**IRIZPENA**

**LEHENA.-** Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko Ordenantzari hasierako onarpena ematea, eranskinean azaltzen den eran.

**BIGARRENA.-** Ordenantza hau eta dagokion espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

biharamunetik hasita, herritarrek aztertu eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkez zitzaten. Era berean, entzunaldia ematea Galtzaundi Euskara Taldeari eta UEMAri.

**HIRUGARRENA.-**Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako udaletxeko iragarki-taulan eta Tolosako Udalaren webgunean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez

Beraz, udalbatzak, aho batez, hasierako onarpena eman dio Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko ordenantzari.

**12..<u>ONARTZEA TOLOSAKO ALDABA AUZORAKO GIPUZKOAO UR KONTSORTZIOAK AURKEZTUTAKO PROIEKTUAK ERAGINDAKO LURSAILAK HIRIGINTZA-ARRAZOIENGATIK NAHITAEZ DESJABETZEKO PROZEDURAN, ERAGINDAKO LURSAIL ETA JABEEN BEHIN BETIKO ZERRENDAREN AKATS ZUZENKETA.</u>**

**AURREKARIAK**

- 2022/02/07an, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak eskaera egin zion Tolosako Udalari Aldabako saneamenduko proiektua garatu ahal izateko beharrezko lurrak eskuratzeko.

- 2022/03/15an, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Tolosako Udalean Aldabako saneamenduko proiektuari sarrera eman zion. Udalak, proiektu hau osatzeko, Ur Kontsortzioari, erasandako lursail eta jabeen zerrenda eskatu zion.

- 2022/04/11an, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak Aldabako saneamenduko proiektuari dagokion erasandako lursail eta jabeen zerrenda igorri zion udalari.

- 2022/08/04an, 2022/2151 Alkate Dekretuz proiektua onartu zen eta erasandako lursail eta jabeen zerrenda jendaurrean jarri zen.

- 2022/08/19tik 2022/09/16a bitartean zerrenda jendaurrean egon zen eta, bitarte horretan, ez zen alegaziorik egon.

- 2022/09/02an, GFAko Lurren kudeaketa eta Ondare saileko zerbitzuburua den Amaia Miner Canflancak mezu bat bidali zuen ondorengoa adierazten:

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

1- Baieztatu zuela Bide Azpiegituretako departamentuarekin ondasun eta eskubideen zerrendan adierazitako lur zatia bere jabetzakoa den GI-3173 errepideari zegokiola.

2- Jabari publikoa zenez, ezin zela desjabetu eta ezin zuela izan behin behineko okupazio arrunta ere. Ondorioz, hasierako aktetan argituko zutela hori eta adieraziko zutela obrak egiten hasi aurretik berariazko baimena eman behar zuela Bide Azpiegiturako departamentuak.

- 2022/09/08an, Tolosako Udalak Aymat S.L. aholkularitza teknikoa kontratatu zuen desjabetzen tramitazioan laguntza teknikoa emateko. Enpresa honetako teknikariak lanean hasi zirenean konturatu ziren katastroak akatsak zituela eta, beraz, erasandako lursail eta jabeen zerrenda aldatu beharra zegoela adierazi zuten.

- 2022/10/06an, udalean sarrera emandako idatzi baten bitartez (2022-10.507) Amaia Arrayet Garmendia eta Julen Egia Truchuelok proiektuko 8. lursaila bere titularitatekoa zela adierazi zuten. Idatziarekin batera lursailaren eskriturak eta ohar soila erantsi zituzten eta proiektuari alegazioak aurkezteari uko egiten zien.

- 2022/10/06an, Inmaculada Lasa Ibargurenek, bere izenean eta Tirso Otamendi Jauregiren izenean idatzi bat sartu zuen udalean (2022-10.508). Idatzi honen bidez alde batetik proiektuko 9. lursaila beraien titularitatekoa zela eta bestetik proiektuari alegazioak aurkezteari uko egiten ziotela adierazi zuten.

- 2022/10/06an, Juan Carlos Arozena Urangak idatzi bat sartu zuen (2022-10.527) udalean adierazten bera eta bere anai-arrebak erasandako lursailaren jabekide moduan jakinarazpenak jaso zituztela, proiektuarekin ados zeudela eta alegazioak aurkezteari uko egingo ziotela. Juan Carlos Arozenak ere eskriturak bidali zituen espedientean sartzeko.

- 2022/10/06an, Mª Asunción Martinez Oconek sinatutako eta posta elektronikoz helarazitako beste idatzi batez ondorengoa adierazi zuen: bera ez zela Tolosako Aldaba auzoko saneamendu proiektuko 5. eta 9. lursailetako jabea eta eskatu zuen gaiari buruz jakinarazpen gehiago ez jasotzea.

- 2022/12/13an, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak, aurreko aldaketak onartuta, proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda eguneratua bidali zuen (2022-10000006774 erregistro zk.).

- 2022/12/28an, hirigintzako tekniko juridikoak txostena egin zuen jendaurreko epean eta ondoren sartu ziren alegazioak jasoaz.

- 2023/01/04an, udaleko idazkariak, hirigintzako tekniko juridikoak egindako txostenean oinarriturik, ziurtagiria egin zuen.

- 2023/01/09an, ingurumen eta landa eremuko teknikariak txostena (IM202200113) egin zuen.

- 2023/01/11an, zinegotzi delegatuaren dekretua (2023/52zk) eman zen, besteak beste erasandako lursail eta jabeen zerrendari behin betiko onespena emanez.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

- 2023/10/02an, Gipuzkoako Ur Kontsortzioak desjabetzeen prozesua lehenbailehen amaitzeko eskaera egin zuen (SIR bidez 2023-10000005520 erregistro zk.).

- 2023/10/02an, Aymat S.L. enpresak, emailez, erasandako lursail eta jabeen zerrenda eta planoak bidali zituen zuzenduta.

- 2023/11/16an, ingurumen eta landa eremuko teknikariak txostena (AO20230033) egin zuen.

- 2023/11/17an, hirigintzako tekniko juridikoak txostena (MAU23095) egin zuen.

- 2023/12/01ean, Udabaltzak, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, erabaki zuen Tolosako Aldaba auzorako Gipuzkoako Ur Kontsortzioak aurkeztutako proiektuak eragindako lursailak hirigintza-arrazoiengatik nahitaez desjabetzeko prozedura presazkotzat deklaratzea eta eragindako lursail eta jabeen zerrenda behin betikoz onestea.

- 2023/12/15ean, lurrak hartu-aurreko aktak sinatu ziren eragindako lursailen jabeekin.

- 2023/12/26-27an, iragarkiak argitaratu ziren egunkarietan.

- 2024/01/05ean, iragarkiak argitaratu zen GAOn (4 zk.).

- 2024/01/08-2024/02/02 bitartean, iragarkia udaletxeko taulan egon zen.

- 2024/01/15ean, udaleko idazkariak proiektuak eragindako lurren erabilgarritasunari buruzko ziurtagiria egin zuen eta, egun berean, Gipuzkoako Ur Kontsortzioari jakinarazi zitzaion.

- 2024/01/23an, Tolosako Jabetza Erregistroan eskaera aurkeztu zen finken jabetza eta kargei buruzko ziurtagiriak eskatuz.

- 2024/02/07an, Tolosako Jabetza Erregistroak finken jabetza eta kargei buruzko ziurtagiriak eman zituen.

## AZTERKETA JURIDIKOA

BEHIN BETIKOZ ONETSITAKO ERASANDAKO LURSAIL ETA JABEEN ZERRENDAN AKATSA ATZEMATEA.

Tolosako Jabetza Erregistroko finken eta kargei buruzko ziurtagiriak aztertuta, ikusi da behin betikoz onetsitako erasandako lursail eta jabeen zerrendan bi akats daudela.

Lehenengo akatsa da proiektuko 8-1 partzelan (531 Jabetza Erregistroko finka) Julen Eguia Truchuelo eta Amaia Arrayet Garmendia jabeez gain, Juana Urdampilleta Zubeldia usufruktuduna ere badela. Beraz, azken hau ere zerrendan barneratu behar da.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Bigarren akatsa da proiektuko 4, 5, 7 eta 8 partzeletan (101 Jabetza Erregistroko finka) ageri den Maria Cruz Alberdi Uranga jabeetako baten abizenen ordena ez dela egokia, izan ere, izen egokia da Maria Cruz Uranga Alberdi.

Hori dela eta, premiaz okupatu beharreko Tolosako Aldaba auzorako Gipuzkoako Ur Kontsortzioak aurkeztutako proiektuak eragindako lursail eta jabeen zerrenda zuzendu behar da era honetan:

Soilik 4, 5, 7, 8 eta 8-1 partzelei dagokionez, honakoa dioen tokian:

| Proiektuko lurzatia Nº parcela de proyecto | Egoera Condición | Izen-abizenak Nombre y apellidos | Helbidea/Udalerria Domicilio/Municipio | Atxikitutako azalerak Superficies ocupadas | | | Katastroko datuak Datos catastrales | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Desjabetuta Expropiación m2 | Zortasunean Servidumbre m2 | Behin-behingoz hartuta Ocupación temporal m2 | Izaera Naturaleza | Poligonoa Polígono | Lurzatia Parcela |
| 4 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Alberdi Uranga | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 8 | | Landalurra Rústica | 11 | 65 |
| 5 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Alberdi Uranga | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 157 | | Landalurra Rústica | 11 | 66 |
| 7 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Alberdi Uranga | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 115 | 124 | Landalurra Rústica | 11 | 66 |
| 8 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Alberdi Uranga | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 194 | 275 | Landalurra Rústica | 11 | 133 |
| 08-1 | Jabea Propietario | Julen Eguia Truchuelo Amaia Arrayet Garmendia | San Juan, 93 1B. 20260 Alegia. | | 52 | 5 | Landalurra Rústica | 11 | 66 |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Honakoa esan behar da:

| Proiektuko lurzatia Nº parcela de proyecto | Egoera Condición | Izen-abizenak Nombre y apellidos | Helbidea/Udalerria Domicilio/Municipio | Atxikitutako azalerak Superficies ocupadas | | | Katastroko datuak Datos catastrales | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Desjabetuta Expropiación m2 | Zortasunean Servidumbre m2 | Behin-behingoz hartuta Ocupación temporal m2 | Izaera Naturaleza | Poligonoa Polígono | Lurzatia Parcela |
| 4 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Uranga Alberdi | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 8 | | Landalurra Rústica | 11 | 65 |
| 5 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Uranga Alberdi | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 157 | | Landalurra Rústica | 11 | 66 |
| 7 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Uranga Alberdi | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 115 | 124 | Landalurra Rústica | 11 | 66 |
| 8 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Uranga Alberdi | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 194 | 275 | Landalurra Rústica | 11 | 133 |
| 08-1 | Jabea Propietario | Julen Eguia Truchuelo Amaia Arrayet Garmendia Juana Urdampilleta Zubeldia | San Juan, 93 1B. 20260 Alegia. Lasarte baserria Aldaba auzoa 25-B, 20267 Tolosa. | | 52 | 5 | Landalurra Rústica | 11 | 66 |

**Tolosako udaleko Lurralde Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrak, 2024ko martxoaren 20an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:**

**Aldeko botoak:** Ander Figuerido Zubiria, Aitor Agirresarobe Murgi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

## IRIZPENA

**LEHENA.-** 2023ko abenduaren 1ean, Tolosako Udabaltzak, Ohiko Osoko Bilkuran, behin betikoz onetsitako Tolosako Aldaba auzorako Gipuzkoako Ur Kontsortzioak aurkeztutako

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

proiektuak eragindako lursailak hirigintza-arrazoiengatik nahitaez desjabetzeko prozeduran eragindako lursail eta jabeen **zerrenda zuzentzea** era honetan:

Soilik 4, 5, 7, 8 eta 8-1 partzelei dagokionez, honakoa dioen tokian:

| Proiektuko lurzatia Nº parcela de proyecto | Egoera Condición | Izen-abizenak Nombre y apellidos | Helbidea/Udalerria Domicilio/Municipio | Atxikitutako azalerak Superficies ocupadas | | | Katastroko datuak Datos catastrales | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Desjabetuta Expropiación m2 | Zortasunean Servidumbre m2 | Behin-behingoz hartuta Ocupación temporal m2 | Izaera Naturaleza | Poligonoa Polígono | Lurzatia Parcela |
| 4 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Alberdi Uranga | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 8 | | Landalurra Rústica | 11 | 65 |
| 5 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Alberdi Uranga | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 157 | | Landalurra Rústica | 11 | 66 |
| 7 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Alberdi Uranga | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 115 | 124 | Landalurra Rústica | 11 | 66 |
| 8 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Alberdi Uranga | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 194 | 275 | Landalurra Rústica | 11 | 133 |
| 08-1 | Jabea Propietario | Julen Eguia Truchuelo Amaia Arrayet Garmendia | San Juan, 93 1B. 20260 Alegia. | | 52 | 5 | Landalurra Rústica | 11 | 66 |

Honakoa esan behar da:

| Proiektuko lurzatia Nº parcela de proyecto | Egoera Condición | Izen-abizenak Nombre y apellidos | Helbidea/Udalerria Domicilio/Municipio | Atxikitutako azalerak Superficies ocupadas | | | Katastroko datuak Datos catastrales | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | Desjabetuta Expropiación m2 | Zortasunean Servidumbre m2 | Behin-behingoz hartuta Ocupación temporal m2 | Izaera Naturaleza | Poligonoa Polígono | Lurzatia Parcela |
| 4 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Uranga Alberdi | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 8 | | Landalurra Rústica | 11 | 65 |
| 5 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Uranga Alberdi | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 157 | | Landalurra Rústica | 11 | 66 |
| 7 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Uranga Alberdi | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 115 | 124 | Landalurra Rústica | 11 | 66 |
| 8 | Jabea Propietario | Hermanos Arocena Uranga y Mª Cruz Uranga Alberdi | Lasarte baserria, Aldaba auzoa 25-A, 20267 Tolosa. | | 194 | 275 | Landalurra Rústica | 11 | 133 |
| 08-1 | Jabea Propietario | Julen Eguia Truchuelo Amaia Arrayet Garmendia Juana Urdampilleta Zubeldia | San Juan, 93 1B. 20260 Alegia. Lasarte baserria Aldaba auzoa 25-B, 20267 Tolosa. | | 52 | 5 | Landalurra Rústica | 11 | 66 |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

**BIGARRENA.-** 08-1 partzelari dagokionez, okupazioaren aurretiko aktaren osagarri bat egitea eragindako interesdun usufruktudunarekin.

**HIRUGARRENA.-** Erabakia udal honetako iragarki-oholean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta herriko egunkarian eta Gipuzkoako bi egunkaritan. Akta egiteko aurreikusitako eguna baino gutxienez zortzi egun lehenago.

Halaber, interesdunen eskura jartzea udal honetako egoitza elektronikoan.

**LAUGARRENA.-** Erabakia zuzenean jakinaraztea Gipuzkoako Ur Kontsortzioari eta eragindako lursailen jabeei.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Ainhoa Dominguez Landa eta Iker Uson Gonzalez

Beraz, udalbatzak, aho batez, onartu du Tolosako Aldaba auzorako Gipuzkoao Ur Kontsortzioak aurkeztutako proiektuak eragindako lursailak hirigintza-arrazoiengatik nahitaez desjabetzeko prozeduran, eragindako lursail eta jabeen behin betiko zerrendaren akats zuzenketa.

**13.GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Besterik gabe, 17:28an, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

| | |
|---|---|
| ALKATEA<br>*O.e.* | IDAZKARIA |

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

# I ERANSKINA

## TOLOSAKO HEZKUNTZA KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN

## ERREGELAMENDUA

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

## TOLOSAKO HEZKUNTZA KONTSEILUAREN ERREGELAMENDUA

Tolosako Udalak jakin badaki hezkuntza erantzukizun partekatua dela, eta, alde horretatik, udal-politikaren eginkizunik garrantzitsuenetako bat. Udalaren nahia da hezkuntza-arloan diharduten eragileen arteko lankidetza sustatzea: ikastetxeen eta gizarte-ingurunearen arteko elkarreragina areagotzea, ikasleentzako baliabide komunitarioak antolatzea, eta hezkuntza formala eta ez-formala gehiago uztartzea.
Helburu horrekin, eta bat etorrita 17/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, EAEko Hezkuntzari buruzkoak, III. Tituluan arautzen duenarekin, Tolosako Udalak erabaki du Tolosako Hezkuntza Kontseilua sortzea.

Tolosako Hezkuntza Kontseilua eratzeak ahalbidetuko du herritarrek eta herri-eragileek parte-hartze handiagoa izatea hezkuntzaren arloan, eta, horrenbestez, botere publikoek modu egokiagoan erantzun ahal izango diete Tolosan hezkuntza-arloan dauden beharrei.

### I. KAPITULUA. KONTSEILUAREN IZAERA ETA JARDUN-EREMUA

*1. artikulua. Izaera.*
Tolosako Hezkuntza Kontseilua kide anitzeko organo aholku-emailea da, Tolosako Udalari atxikia Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren bitartez. Kontseilua harreman-organoa da, non elkartuko diren Tolosan hezkuntzaren arloan ari diren eragileak: ikastetxeak, familiak, bestelako elkarteak, eta erakunde publikoak nahiz pribatuak.
Kontseiluaren esku-hartzea adieraziko da bere eginkizuntzat hartutako gaien azterketan. Gai horiei buruz egindako proposamenak edo alternatibak ez dira Udalarentzat lotesleak izango. Kontseiluak Udalari egindako proposamenak edo alternatibak ez badira kontuan hartuak behin betiko onespenean, horren zergatiak adierazita erantzungo zaio Kontseiluari. Era berean, Udalak beharrezko diren mekanismoak eta bideak ezarriko ditu planteatutako proposamenek eragina izan dezaten udal-jardueran.
Funtzionamendu egokia bermatzeko, Euskara eta Hezkuntza Sailaren laguntza teknikoa izango du Kontseiluak.

*2. artikulua. Helburua.*
Tolosako Hezkuntza Kontseiluaren helburua da eragileen parte-hartzea areagotzea, eta hezkuntza-arloan lankidetza sustatzea. Elkarlan horren bitartez, lortu nahi da ikastetxeen eta gizarte-ingurunearen arteko elkarreragina areagotzea, ikasleentzako

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

baliabide komunitarioak antolatzea herrian, eta hezkuntza formala eta ez-formala gehiago uztartzea.

*3. artikulua. Eskumenak.*

Kontuan hartuta zer xedatzen duten 17/2023 Legeak, abenduaren 21ekoak, EAEko Hezkuntzari buruzkoak, eta 13/1988 Legeak, urriaren 28koak, Euskadiko Eskola-Kontseiluei buruzkoak, gai hauei buruzko iritzia ematea dagokio Tolosako Hezkuntza Kontseiluari, hezkuntza-administrazioak eta Tolosako Udalak derrigorrez kontsulta eginda:

a) Hezkuntza-premiak identifikatzea, eskaintza banatzea eta ikasleak eskolatzeko irizpideak zehaztea, hiri-plangintzatik eratorritakoak barne direla.
b) Berariazko hezkuntza-laguntzaren premia duten ikasleen eskolatze egokia eta orekatua bermatzeko beharrezko diren jarduketak eta neurriak, arrazoi sozioekonomikoek edo bestelakoek sorturiko ikasle-segregazioa saihesteko.
c) Ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dioten udal-jarduketak.
d) Udalerria esparru duten hezkuntza-patronatu,-partzuergo eta -erakundeak eratzea.
e) Gizarteak hezkuntza-komunitateari egiten dizkion prestakuntza-ekintzak koordinatzea eta txertatzea.
f) Hezkuntza-komunitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko jarduerak, indarkeria matxistaren eta eskola-jazarpenaren kontrakoak, eta arraza-, sexu- edo erlijio-bereizkeriagatik eta 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.1 artikuluan ezarritako beste diskriminazio-faktore batzuengatik gerta litekeen edozein bereizkeriaren aurkakoak.
g) Tolosako Udaleko Berdintasun Saila garatzen ari den Hezkidetza Proiektuaren barruan antolatzen diren jardueren eta programen informazioa, komunikazioa, koordinazioa eta jarraipena.
h) Bizikidetza positiboa sustatzeko jarduerak, eskola askotariko, libre, seguru eta indarkeriarik gabekoa xede dutenak.
i) Hezkuntza-komunitatean euskararen normalizazioarekin eta erabilerarekin lotutako jarduerak.

## II. KAPITULUA. KONTSEILUAREN OSAERA ETA EGINKIZUNAK

*4. artikulua. Batzarraren osaera.*

Honako hauek izango dira Tolosako Hezkuntza Kontseiluaren batzarreko kide:

a) Lehendakaria: Hezkuntza-arloko zinegotzi delegatua, eta haren ordezkoa.
b) Udalbatzan ordezkaritza duen talde politiko bakoitzeko ordezkari bana, eta haien ordezkoak.
c) Unibertsitatez kanpoko Tolosako ikastetxeetako zuzendariak, eta haien

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

ordezkoak.

d) Unibertsitatez kanpoko Tolosako ikastetxe bakoitzeko familia-elkarteen ordezkari bana, eta haien ordezkoak.
e) Hezkuntza ez-formalarekin lotutako taldeetako eta elkarteetako ordezkariak, eta haien ordezkoak.
f) Idazkaria: Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburua, eta haren ordezkoa, ahotsarekin baina botorik gabe.

Kontseiluaren zereginak hobeto betetze aldera, batzarretara joan ahal izango dira udal-teknikariak, ahotsarekin baina botorik gabe.

Era berean, bileratara gonbidatu ahal izango dira beste elkarte edo talde batzuetako ordezkariak, baita norbanakoak ere, aztergai diren gaiarekin lotura dutelako edo haien ekarpena interesgarria izan daitekeelako. Ahotsa izango dute, baina ez botorik.

Ez dira inola ere kide gisa onartuko sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak, eta emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak. Era berean, ezingo dute parte hartu sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisikoek edo juridikoek, dena delako zehapenak edo zigorrak dirauen denboran.

*5. artikulua. Kontseiluko kideen izendapena.*

Era honetan izendatuko dira Kontseiluko kideak eta haien ordezkoak:

a) Udal-talde politikoetako ordezkariak Udalbatzak izendatuko ditu, talde bakoitzak proposaturik, agintaldi bakoitzaren hasieran.
b) Ikastetxeetako, familietako eta gainerako taldeetako ordezkariak alkatearen edo zinegotzi delegatuaren ebazpen bidez izendatuko dira, dagokion elkarteak egindako proposamenari jarraikiz.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira Kontseiluan emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza). Presentzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia orekatua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sartuz, emakumeek presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

Ordezkariek entitate bakar baten izenean hartuko dute parte, eta pertsona batek ezingo

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

du, inolaz ere, entitate bat baino gehiago ordezkatu.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoari aurka egin gabe, Kontseiluko kideek kontseilukide izateari utziko diote ondorengo kasu hauetan:

- Norbere borondatez, betiere idatziz adierazten badu.
- Erregelamendu honetan adierazitako funtzioak behin eta berriro ez betetzeak eragindako enkaitzeagatik edo kargugabetzeagatik.
- Ordezkatzen duen elkartea, taldea edo kolektiboa desagertzen bada.
- Elkartearen estatutuetan izendatu izanaren funtsezko aldaketarik gertatzen bada.
- Lehendakaritzaren kasuan, delegazio aldatu edo uzteagatik.
- Ordezkatzen duen elkartea uzteagatik.
- Heriotzagatik.

*6. artikulua. Kontseilukideen eskubideak eta betebeharrak.*

Honako eskubide hauek dauzkate Tolosako Hezkuntza Kontseiluko kideek:

a) Kontseiluaren bileretako eztabaidetan parte hartzea.
b) Gai-zerrendan jasota ez dagoen gairen bat proposatzea. Horrelakoetan, Kontseiluak gehiengo soilez hartuko du gaia eztabaidatzeko erabakia.
c) Hezkuntzari buruzko proposamenak planteatzea.
d) Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko garatzen diren ekintzei buruzko informazioa jasotzea.
e) Kontseiluaren aktak eta dokumentazio guztia eskuratu ahal izatea.
f) Erregelamendu honek nahiz indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste eskubide guztiak.

Honako betebehar hauek dauzkate Tolosako Hezkuntza Kontseiluko kideek:

a) Kontseiluaren bileretan eta kide diren lantaldeen bileretan parte hartzea.
b) Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko sustatzen diren ekintzetan laguntza ematea.
c) Erregelamendu honetan xedatutakoa errespetatu eta betetzea.
d) Elkarte, talde edo kolektiboen kasuan, Udalari jakinaraztea beren estatutuak aldatuz gero, aldaketa horiek izendapenetan eraginik baduten aztertzeko.
e) Entitatearen ordezkaria edo helbide soziala aldatuz gero, horren berri jakinaraztea.
f) Erregelamendu honek eta indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste betebehar guztiak.

*7. artikulua. Lehendakariaren eginkizunak.*

Honako zeregin hauek izango ditu Kontseiluko lehendakariak:

a) Kontseiluaren ordezkari izatea.
b) Gai-zerrenda onartzea.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

c) Bileran buru egitea eta bileren garapena moderatzea.
d) Elkarteak, taldeak edo norbanakoak gonbidatzea, Kontseiluak emandako iritziaren arabera.
e) Kontseiluaren ekimenak eta proposamenak helaraztea Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrari edo, hala badagokio, Udalbatzari.
f) Kontseiluaren aktei eta hartutako erabakien ziurtagiriei oniritzia ematea.
g) Lehendakari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

*8. artikulua. Idazkariaren eginkizunak.*

Honako zeregin hauek izango ditu Kontseiluko idazkariak:

a) Lehendakariarekin batera, gai-zerrenda prestatzea.
b) Bilkurarako deialdia eta gai-zerrenda bidaltzea.
c) Kontseiluaren bilkuretako akta egitea, eta Kontseiluko kideen esku jartzea.
d) Kontseiluak hartutako erabakiak bideratzea.
e) Kontseilukideen alta- eta baja-eskaerak jasotzea eta tramitatzea, baita dagokion erregistroa kudeatzea ere.
f) Kontseiluko kideen proposamenak jasotzea, eta, hala badagokio, horien berri ematea.
g) Kontseiluko kideei aholkuak ematea, hala eskatzen zaionean.
h) Idazkari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

## III. KAPITULUA. ANTOLAKETA ETA BOTO-ESKUBIDEA

*9. artikulua. Kontseiluaren egitura.*

1. Tolosako Hezkuntza Kontseilua Osoko Bilkuran eta Batzorde Iraunkorrean egituratuko da. Kontseilukide guztiak izango dira Osoko Bilkurako partaide, eta Batzorde Iraunkorra 14. artikuluan ezarritako gisan eratuko da.
2. Kontseiluaren barruan lantaldeak eratu ahal izango dira, 13. artikuluan ezarritako eran.

*10. artikulua. Osoko bilkura eratzea.*

Tolosako Hezkuntza Kontseiluaren batzarra eratutzat joko da kontseilukideen erdiak eta bat gehiago bertaratu direnean. Nolanahi ere, eraketak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria bertan egotea.

*11. artikulua. Osoko bilkuraren bilerak.*

1. Tolosako Hezkuntza Kontseiluak gutxienez bi bilera egingo ditu ikasturte bakoitzean. Bilkura bereziak ere egin ahal izango ditu, Kontseiluko lehendakariak beharrezkotzat jotzen badu edo kideen laurdenek eskatzen badute.
2. Ohiko bilkuretarako deiak gutxienez bost eguneko aurrerapenarekin egingo dira, eta

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

harekin batera bidaliko dira gai-zerrenda eta beharrezko dokumentazioa.
3. Bilkura berezietarako deiak gutxienez bi egun balioduneko aurrerapenarekin egingo dira, eta inoiz ez 48 ordu baino gutxiagoko tartearekin.

*12. artikulua. Boto-eskubidea.*

Tolosako Hezkuntza Kontseiluak izaera parte-hartzailea duenez, sustatuko da erabakiak adostasunez hartzea, horretarako behar diren elkarrizketak eta eztabaidak bideratuta.

Adostasunik ez badago, eskubidea duen bakoitzak bere botoa emango du, eta hala jasota geratuko da aktan. Erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira. Bozketan berdinketarik izanez gero, berriro bozkatuko da, eta, hala ere berdinketarik egongo balitz, lehendakariaren bozak bi halako balioko du.

*13. artikulua. Lantaldeak.*

1. Kontseiluak dauzkan eskumenen edo eginkizunen esparruko gaiak aztertzeko, lantaldeak eratu ahal izango dira. Kontseiluko lehendakariak edo Kontseiluko kideen laurdenek eskatuta eratuko dira batzorde horiek.
2. Honako hauek osatuko dituzte lantaldeak: kontseiluburuak, idazkariak eta kontseilukide-kopuru jakin batek —kopuru hori gutxienez hirukoa izango da, eta gehienez hamarrekoa—. Kontseiluburua eta idazkaria ez badira lantaldeko kide, pertsona bat izenda dezakete beren eginkizunak betetzeko.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira lantaldeetan emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza). Presentzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia orekatua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sartuz, emakumeek presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

3. Lantaldeei dagokie Tolosako Hezkuntza Kontseiluaren osoko bilkurarako proposamenak egitea.
4. Lantaldeetako bileren araubidea malgua izango da, eta beharraren arabera deituko dira.

*14. artikulua. Batzorde Iraunkorra.*

1. Tolosako Hezkuntza Kontseiluak Batzorde Iraunkorra eratuko du, zeinak honako kide hauek izango dituen:

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

a) Kontseiluko lehendakaria.
b) Udal-talde politiko bakoitzeko ordezkariak, eta haien ordezkoak.
c) Oinarrizko hezkuntzako ikastetxeetako zuzendariak, eta haien ordezkoak.
d) Kontseiluko idazkaria.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira  Batzorde Iraunkorrean emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza). Presentzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia orekatua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sartuz, emakumeek presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

2. Batzorde Iraunkorrak premiaren arabera egingo ditu bilerak.

3. Batzorde Iraunkorrean landu behar bada lantalde batek egindako proposamenen bat, bertan izan beharko dute lantalde horrek hautatutako ordezkariek.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

# II ERANSKINA

# EUSKARAREN AHOLKU KONTSEILUA ARAUTZEKO

# ERREGELAMENDUA

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

# EUSKARAREN AHOLKU KONTSEILUA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA

## AURREKARIAK

Tolosako Udalbatzak 1990eko ekainaren 29an onartu zuen Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantza, eta 35. artikuluak ezartzen du hizkuntza-politikari buruzko koordinazio-organo bat sortuko dela udalerrian, «euskara normalizatzeko lanetan dihardutenen eztabaidarako elkargune izango dena».

Bide beretik, Tolosako Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 28an onartu zuen Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko erregelamendua. Organo aholku-emailea eta eztabaidatzailea da Kontseilua, erregelamenduaren lehen artikuluak zehazten duenez. Finean, Kontseiluak hartu zuen Euskara Batzordeak urteetan edukitako funtzioa.

Horri dagokionez, kontuan hartu behar da zer xedatzen duen 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak: udalak herritarren partaidetza bultzatu behar duela herriko kontuetan. Udalbatzak 2022ko maiatzaren 26an onartu zuen Tolosako Udaleko Gobernantza, Partaidetza eta Gardentasunari buruzko Ordenantza. Herritarren partaidetzarako organoak arautzen dira 35. artikuluan, eta, besteak beste, zehazten da zer izaera duten: «Udalaren eta herritar norbanakoen zein antolatutakoen arteko topagune egonkor eta iraunkorrak dira eta nolabaiteko erregulartasunez biltzen dira, udal jarduerei, zerbitzu programei, planei edo politikei buruzko iritzi eta proposamenen gainean dialogatu, debatitu edo eztabaidatzeko. Organo hauek kontsultiboak dira».

Hizkuntza-politikaren esparruan, 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, 59. artikuluan ezartzen du toki-erakundeek nola landu behar duten hizkuntza-plangintza; besteak beste, «eragile eta kolektibo inplikatuekin hitzartuta» egin behar direla.

Xede horiekin, Tolosan hizkuntza-politika bateratua lantzeko helburuz, eta parte-hartzearen, sinplifikazioaren eta efikaziaren printzipioak oinarritzat harturik, Tolosako Udalak berritu egin du Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzen duen erregelamendua.

### *1. artikulua. Eratzea.*

Tolosako Udalak aitortzen du hizkuntza-eskubideak oinarrizkoak direla, eta, ondorioz, botere publikoek herritar guztiei bermatu beharrekoak. Era berean, uste du gobernantza onak bete beharreko printzipioetako bat dela herritarrek hizkuntza-politiken sorreran parte hartzea, baita proiektuak eta programak planifikatzen eta

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

ebaluatzen ere. Horrenbestez, hizkuntza-normalizazioak Tolosarentzat duen garrantzi estrategikoa dela-eta eratu nahi da Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua.

*2. artikulua. Euskararen Aholku Kontseiluaren izaera.*

Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua kide anitzeko organo aholku-emailea eta eztabaidatzailea da, Tolosako Udalari Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren bidez atxikia.

Kontseilua harreman-organoa da, non elkartuko diren Tolosan hizkuntza-normalizazioan diharduten taldeetako, elkarteetako eta erakunde publiko nahiz pribatuetako ordezkariak.

Kontseiluaren esku-hartzea adieraziko da bere eginkizuntzat hartutako gaien azterketan. Gai horiei buruz egindako proposamenak edo alternatibak ez dira Udalarentzat lotesleak izango. Kontseiluak Udalari egindako proposamenak edo alternatibak ez badira kontuan hartuak behin betiko onespenean, horren zergatiak adierazita erantzungo zaio Kontseiluari.

Kontseiluak Udalarekin izan beharreko harreman guztiak Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren bidez bideratuko ditu.

Funtzionamendu egokia bermatzeko, Euskara eta Hezkuntza Sailaren laguntza teknikoa izango du Kontseiluak.

*3. artikulua. Euskararen Aholku Kontseiluaren eginkizunak*

Euskararen Aholku Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira:

1. Tolosako Udalari laguntzea euskarari buruzko plan estrategikoak diseinatzen eta garatzen.

2. Parte hartzea plan estrategikoa garatzeko urteko kudeaketa-planen diseinuan eta jarraipenean.

3. Oro har, Tolosako Udaleko Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorraren eskariari jarraituz, Tolosan euskararen erabilera normalizatzearekin lotutako gaiak aztertzea.

Egokitzat joz gero, Euskararen Aholku Kontseiluak erabaki dezake lantaldeak eratzea, helburu edo arlo zehatzei loturik, edo egoera zehatzak aztertzeko.

*4. artikulua. Euskararen Aholku Kontseiluko kideak.*

Ondorengo hauek izango dira Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseiluko kideak:

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

a) Euskara eta Hezkuntza Saila:

• Lehendakaria: Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua eta haren ordezkoa.

• Idazkaria: Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburua eta haren ordezkoa.

• Euskara eta Hezkuntza Saileko hizkuntza-normalkuntzako teknikaria eta haren ordezkoa.

• Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendaria eta haren ordezkoa.

• UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko teknikaria eta haren ordezkoa.

b) Udal-taldeak: Tolosako Udalbatzan ordezkaritza duen talde bakoitzeko ordezkari bat, eta haien ordezkoak.

c) Udalerrian hizkuntza-normalizazioan diharduten taldeetako ordezkariak:

• Galtzaundi Euskara Taldeko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

• Tolosaldeko Ataria hedabideko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

• 28 Kanala hedabideko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

• Samaniego Herri Ikastetxeko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

• Orixe Institutuko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

• Laskorain Ikastolako ordezkari bat eta haren ordezkoa.

• Herrikide Ikastetxeko ordezkari bat eta haren ordezkoa.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Udal-talde eta eragile bakoitzak bere ordezkaria eta haren ordezkoa izendatuko ditu, eta Kontseiluak karguen jabetza emango die, betiere ez badago inolako bateraezintasun- edo debeku-arrazoirik.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira Kontseiluan emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza). Presentzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia orekatua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sartuz, emakumeek presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

Ez dira inola ere kide gisa onartuko sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte

edo erakundeak, eta emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak. Era berean, ezingo dute parte hartu sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisikoek edo juridikoek, dena delako zehapenak edo zigorrak dirauen denboran.

Euskararen Aholku Kontseiluko kidea entitate baten ordezkari izanez gero, entitateak berak izendatuko du —ordezkoa ere bai—. Kide horiek entitate bakar baten izenean hartuko dute parte, eta pertsona batek ezin izango du, inolaz ere, entitate bat baino gehiago ordezkatu.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoari aurka egin gabe, Kontseiluko kideek kontseilukide izateari utziko diote ondorengo kasuetan:

• Norbere borondatez, betiere idatziz adierazten badu.

• Erregelamendu honetan adierazitako funtzioak behin eta berriro ez betetzeak eragindako enkaitzeagatik edo kargugabetzeagatik.

• Ordezkatzen duen elkartea, taldea edo kolektiboa desagertzen bada.

• Elkartearen estatutuetan izendatu izanaren funtsezko aldaketarik gertatzen bada.

• Lehendakaritzaren kasuan, delegazio aldatu edo uzteagatik.

• Ordezkatzen duen elkartea uzteagatik.

• Heriotzagatik.

Kontseilukide izateari uztea Kontseiluak berak berretsiko du, lehendakariaren proposamenari jarraikiz.

Nahiz eta Kontseiluko kide ez izan, bileretara joan ahal izango dira bestelako elkarteetako edo taldeetako ordezkariak, baita herritarrak ere. Horiek ez dira izango Kontseiluko eskubide osoko kideak, eta, beraz, ezin izango dute botoa eman eta ez dira aintzat hartuko quorumari dagokionez.

*5. artikulua. Kontseilukideen egitekoak.*

1. Kontseiluaren lehendakariak honako funtzio hauek ditu:

• Kontseiluaren ordezkari izatea.

• Udal-teknikariak, eta erakundeen eta elkarteen ordezkariak gonbidatzea.

• Gai-zerrenda onartzea.

• Bileran buru egitea, eta bileren garapena moderatzea.

• Herritarren parte-hartzea bermatzea.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

• Kontseilukide izateari uzteko proposamenak egitea.

• Entitate, elkarte edo herritarrek gonbidatu gisa parte hartzeko egiten dituzten eskaerak onartzea edo baztertzea, Kontseiluak emandako iritziaren arabera, eta gonbidapena bidaltzea.

• Kontseiluaren ekimenak eta proposamenak helaraztea Herritarrak Lan Esparruko Informazio Batzorde Iraunkorrari edo, hala badagokio, Udalbatzari, horiek bidera ditzaten.

• Kontseiluaren aktei eta hartutako erabakien ziurtagiriei oniritzia ematea.

• Lehendakari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

2. Kontseiluaren idazkariak honako funtzio hauek ditu:

• Kontseiluko bileretara joatea.

• Bileretako aktak egitea.

• Akta guztiak Euskara eta Hezkuntza Sailean gordetzea eta Kontseiluko kideen esku jartzea.

• Bileretarako deialdiak bidaltzea, gai-zerrendarekin eta azken bilerako aktarekin batera.

• Kontseiluak hartutako erabakiak bideratzea.

• Kontseilukideen alta- eta baja-eskaerak jasotzea eta tramitatzea, baita dagokion erregistroa kudeatzea ere.

• Artxibo- eta erregistro-eginkizunak betetzea.

• Idazkari izateagatik dagokion beste edozein eginkizun betetzea.

3. Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak, hizkuntz normalizazioko teknikariak eta Aitzol Udal Euskaltegiko zuzendariak honako funtzio hauek dituzte:

• Aholku ematea dagokion arloari buruzko alderdi teknikoei buruz.

• Lehendakariari proposatzea Kontseilurako gai-zerrendarako gaiak.

*6. artikulua. Kontseilukideen eskubideak eta betebeharrak.*

Honako eskubide hauek dauzkate Euskararen Aholku Kontseiluko kideek:

• Kontseiluaren bileretako eztabaidetan parte hartzea.

• Gai-zerrendan jasota ez dagoen gairen bat proposatzea. Horrelakoetan, Kontseiluak

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

gehiengo soilez hartuko du gaia eztabaidatzeko erabakia.

• Hizkuntza-politikari buruzko proposamenak planteatzea.

• Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko garatzen diren ekintzei buruzko informazioa jasotzea.

• Kontseiluaren aktak eta dokumentazio guztia eskuratu ahal izatea.

• Erregelamendu honek nahiz indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste eskubide guztiak.

Honako betebehar hauek dauzkate Euskararen Aholku Kontseiluko kideek:

• Kontseiluaren bileretan eta kide diren lantaldeen bileretan parte hartzea.

• Kontseiluak hartutako erabakiak betetzeko sustatzen diren ekintzetan laguntza ematea.

• Erregelamendu honetan xedatutakoa errespetatu eta betetzea.

• Elkarte, talde edo kolektiboen kasuan, Udalari jakinaraztea beren estatutuak aldatuz gero, aldaketa horiek izendapenetan eraginik baduten aztertzeko.

• Entitatearen ordezkaria edo helbide soziala aldatuz gero, horren berri jakinaraztea.

• Erregelamendu honek eta indarrean dagoen legediak ezar dakizkiekeen beste betebehar guztiak.

*7. artikulua. Kontseiluaren egitura.*

1. Kontseilukide guztiek osatuko dute Euskararen Aholku Kontseiluaren batzarra.

2. Honako kide hauek osatuko dute Euskararen Aholku Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra:

• Euskara eta Hezkuntza Saileko zinegotzi delegatuak eta haren ordezkoak (lehendakaria).

• Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburuak eta haren ordezkoak (idazkaria).

• Euskara eta Hezkuntza Saileko hizkuntz normalizazioko teknikariak eta haren ordezkoak.

• UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko teknikariak eta haren ordezkoak.

• Tolosako Udalbatzan ordezkaritza duten talde bakoitzeko ordezkari banak eta haien ordezkoek.

• Galtzaundi Euskara Taldeko ordezkariak eta haren ordezkoak.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak,

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira Batzorde Iraunkorrean emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza). Presentzia orekatu hori bete dadin, Udalak sustatuko du elkarteetako edota erakundeetako zuzendaritza-organoetan presentzia orekatua izatea, besteak beste, dirulaguntzen oinarrietan neurriak sartuz, emakumeek presentzia txikia duten zuzendaritza-organoetan presentzia hori handitzea ahalbidetzeko.

Ez dira inola ere kide gisa onartuko sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duten elkarte edo erakundeak, eta emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartzea onartzen ez duten edo oztopatzen duten jarduerak antolatzen dituzten elkarteak. Era berean, ezingo dute parte hartu sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisikoek edo juridikoek, dena delako zehapenak edo zigorrak dirauen denboran.

*8. artikulua. Bileren aldizkakotasuna.*

1. Euskararen Aholku Kontseiluak urtean bi aldiz egingo du batzarra: bat, urte amaieran, urteko kudeaketa-planaren deskargua jasotzeko eta hurrengo urteko kudeaketa-plana onesteko; bestea, uda hasieran, urteko jarraipena egiteko. Bilkura horiek publikoak izango dira, eta Udalak aldez aurretik emango du deialdiaren berri, edozein eragile edo herritarrek aukera izan dezan joateko. Horiek ez dute boto-eskubiderik izango.

2. Euskararen Aholku Kontseiluaren Batzorde Iraunkorra hilean behin bilduko da, urteko kudeaketa-planean aurreikusitako jarduerak planifikatzeko eta haien jarraipena egiteko.

3. Lehendakariak beharrezkotzat joz gero, ohiz kanpoko bilerak egin ahal izango ditu Euskararen Aholku Kontseiluaren batzarrak, baita Batzorde Iraunkorrak ere.

4. Eskubide osoko kideen erdiek eskubidea izango dute ohiz kanpoko bilera eskatzeko. Halakoetan, gehienez ere hamabost eguneko epean gauzatuko dira bilera horiek. Deialdia gutxienez zazpi egun natural lehenago egin beharko da.

*9. artikulua. Kontseilua eratzea.*

1. Euskararen Aholku Kontseiluaren batzarra eratutzat joko da kontseilukideen erdiak eta bat gehiago bertaratu direnean. Nolanahi ere, eraketak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da lehendakaria eta idazkaria bertan egotea.

2. Batzorde Iraunkorra eratutzat joko da kideen erdiak eta bat gehiago bertaratu direnean. Nolanahi ere, eraketak balioa izan dezan, beharrezkoa izango da

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

lehendakaria eta idazkaria bertan egotea.

*10. artikulua. Boto-eskubidea.*

Kontseilukide guztiek dute boto-eskubidea, Tolosako Udaleko eta UEMAko langileek izan ezik, baina proposamenak onartzeko adostasuna sustatuko da.

Proposamenak egiten direnean adostasuna lortzerik ez badago, eskubidea duen bakoitzak bere botoa emango du, eta hala jasota geratuko da aktan. Erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira. Bozketan berdinketarik izanez gero, berriro bozkatuko da, eta, hala ere berdinketarik egongo balitz, lehendakariaren bozak bi halako balioko du.

Erregelamendu honetan jaso ez diren gai guztietarako bete beharko da udal-organoen araudian eta toki-erregimeneko araudiak kide anitzeko organoen inguruan ezarritakoa.

*Xedapen indargabetzailea.*

Baliorik gabe geratzen da Tolosako Udalbatzak 2021eko urtarrilaren 28an onartutako Tolosako Udaleko Euskararen Aholku Kontseilua arautzeko erregelamendua, baita Erregelamendu honen maila berekoak edo txikiagoak izanik, Erregelamendu honetan xedatuarekin bat ez datozen erabaki guztiak.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

# III ERANSKINA

# ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA ARAUTZEKO

# ORDENANTZA

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

# ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA ARAUTZEKO ORDENANTZA

Euskara da Tolosako berezko hizkuntza, errealitatearen eta indarrean dagoen legediaren arabera. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa arautzeko Ordenantza honek bi helburu ditu: batetik, hizkuntza-alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea Tolosako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haiei baimena edo gaikuntza emateko prozeduretan; bestetik, euskararen erabilera normalizatzeko onuragarrienak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea, eta, ondorioz, neurriak diseinatzea hizkuntza-inpaktuaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko.

2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, honako hau zehazten du 7.7. artikuluan: «Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira».

Lege hori garatzen du 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak. Zioen azalpenean argi adierazten du hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak izaera irekia daukala, eta izaera hori arrazoizkoa dela, bai administrazio-jardueraren sinplifikazio-printzipioaren ikuspegitik, bai hizkuntza-politikako tresna gisa izan behar duen efikaziagatik. Hau zehazten du ondoren: «… gai honetan ere udal bakoitzari tarte zabala ematen zaio, hizkuntza-normalizazioaren arloko erantzukizuna hoberen irizten dion moduan gauzatu dezan, baina beti gutxieneko irizpide batzuk betez. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioak udalei aukera aski handia ematen die egoera malgutasunez aztertu eta baloratzeko, halako eran non sistema malgu bat eskaintzen baitzaie udalei, planifikatzeko eta programatzeko garaian hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren abantailez balia daitezen».

Ordenantzaren testu artikulatuan, lehenik, xedapen orokor multzo batek aditzera ematen ditu erregelamendu honen oinarri eta printzipio orokorrak. Jarraian, zehazten da zein plan eta proiektu diren ebaluatu beharrekoak, baita horretarako organo arduraduna zein den ere. Ondoren, ebaluazioa egiteko erabiliko den metodologia zehazten da. Amaitzeko, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenaren onarpena eta eraginkortasuna azaltzen dira.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

## I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Helburuak eta aplikazio-eremua.*

1. Ordenantza honen helburu nagusia da Tolosan gauzatzen diren egitasmo eta jarduera pribatu zein publikoek bertako euskararen errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea, betiere Udalak dituen eskumenen barruan.

2. Hortaz, euskararen aldeko konpromiso publikoa hartzeaz gain, Tolosako Udalak nahi du gainerako erakunde publiko eta politikoek, erakunde pribatuek eta gizarte zibilak ere har ditzatela neurriak helburu bera abian jartzeko. Horretarako, lankidetza bilatu du, udalerrian gauzatzen diren egitasmoek, euskararen eta euskal hiztun-komunitatearen egoerari kalterik eginez gero, horiek murrizteko eta aurrea hartzeko neurriak hartzeko helburuarekin.

3. Xede horretan, elkar hartuta joan behar dute ikuspegi teknikoak, politikoak, juridikoak eta sozialak, hartara lortzeko udalerrian gauzatzen diren egitasmo publikoek eta jarduera pribatuek euskarari kalterik ez egitea. Horregatik, ordenantza hau aplikatuko zaie Tolosako udal-administrazioari eta harekin lotura duten edo Udalaren esku dauden erakunde autonomo eta publikoei, baita udalerriaren egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen udalerriaz gaindiko eremuko proiektuak eta planak onartzeko prozedurei ere. Udalarekin lankidetza-hitzarmenak sinatzen dituzten edota Udalaren dirulaguntzaren bat jaso duten erakunde pribatuei ere aplikatuko zaie.

*2. artikulua. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa.*

Arestian aipatutako helburuak betetzeko, araudi honek Eragin Linguistikoa Ebaluatzeko Tresna erabiliko du. Xede hauek lortu nahi dira ebaluazioaren bidez:

a) Hizkuntza-alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea udalerriaren egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haiei baimena edo gaikuntza emateko prozeduretan.

b) Euskararen erabilera normalizatzeko onuragarrienak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea.

c) Neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko. Era berean, euskararen mesedetan egin daitezkeen planak eta proiektuak ebaluatzea eta zuzentzea, hala badagokio.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

*3. artikulua. Printzipio orokorrak.*

1. Zeharkakotasuna.

Ordenantza honek, udalerrian hizkuntzari eragiten dioten egitasmoak ebaluatzeko tresna izaki, erabateko zeharkakotasuna du udal-administrazioan eta udalerriko egitasmoetan. Hala, Ordenantza honetan ezartzen diren irizpideek, hizkuntza-politika direnez gero, udal-egitasmo guztiei eragingo diete, eta, ondorioz, sail eta proiektu guztietara hedatu beharko dira.

2.- Zuhurtzia eta prebentzioa.

Zuhurtziaz jokatu behar da udalerrian onartzen den edozein proiektu edo egitasmo publiko edo pribaturen aurrean. Zalantza izanez gero planak edo proiektuak nolako eragina izango lukeen euskarari dagokionez, tentuz aztertuko da, eta prebentzioa izango da oinarri.

Tolosako Udalak aukerarik onenak baliatuko ditu planak onartu edo proiektuei baimena edo gaikuntza ematen dienean, inpaktu kaltegarriak ahalik eta txikienak izan daitezen, eta, behar izanez gero, inpaktu horiek konpentsa daitezen.

Horregatik, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazio-prozedura hasieratik sartuko da plana onartzeko edo proiektuari baimena edo gaikuntza emateko funtsezko prozeduran, eta ebaluazioa amaituko da plana behin betiko onartu edo proiektua behin betiko baimendu aurretik.

3.- Lurralde-antolaketan hizkuntzen antolaketa aintzat hartzea.

Udalerrian kontuan izan beharko da ezen, euskararen erabilera normalizatzeko, ezinbestekoa dela norbanakoak ez ezik espazioak ere euskalduntzea, espazio geografikoak zein funtzionalak.

Horretarako, hizkuntzaren antolaketa aintzat hartu beharrekoa da Lurralde Antolamendurako Gidalerro edo arau orokorretatik hasi eta lurralde-antolaketako gainerako oinarrietan.

4.- Arnasguneen zaintza eta hedapenerako tratamendu berezia.

Mendekotasun egoeran dago euskara, eta arnasguneak behar ditu: funtzio guztiak mugarik gabe askatasunez betetzeko eta garatzeko lekuak. Hizkuntzak, garatuko bada, nagusi den esparruak behar ditu, eta arnasgune horiek zaindu, sortu eta hedatu beharrekoak dira. Hortaz, lehentasunezko trataera eman beharko zaie.

Araudi honen bidez, trataera berezia emango zaie Tolosan arnasgunetzat jo diren eremuei, eta gune horiek hedatzea sustatuko da, kontuan hartuta hizkuntza gutxituaren

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

etorkizunerako giltzarri direla.

5.- Ebaluazioaren kalitate teknikoa.

Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren kalitate teknikoa ziurtatzea ezinbestekoa denez, beharrezkoa da ebaluazioa egiteko metodologia zehatz bati jarraitzea. Horretarako, sustatzaile pribatuek Tolosako Udalari helarazi beharko dizkiote Udalak beharrezkotzat jotako datu guztiak.

Ebaluazioak kontuan hartuko ditu honako puntu hauek ere:

— Interesdunen eta herritarren parte-hartzea.

— Prebentzio-, zuzenketa- eta, behar izanez gero, konpentsazio-neurriak.

— Konfidentzialtasuna.

*4. artikulua. Eskumena.*

Ordenantza honek kontuan hartzen du 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7. artikuluan zehaztutakoa, eta 179/2019 Dekretuak, azaroaren 19koak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, ezarritakoa.

## II. KAPITULUA: PLANEN ETA PROIEKTUEN ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEA

*5. artikulua. Ebaluatu behar diren planak eta proiektuak.*

1. Tolosan hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko zaie jarraian zerrendatzen diren planei eta proiektuei, baita horien funtsezko aldaketei ere, baldin eta eragina izan badezakete euskararen erabileran:

a) Planak:

— Hiri-antolamenduko plan orokorrak.

— Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.

— Sektorizatze-plana.

— Plangintzako arau subsidiarioak.

— Plan partzialak.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

— Hiri-antolamenduko plan bereziak.

— Turismo-planak.

b) Proiektuak:

— Merkataritza-gune handiak eraikitzeko proiektuak.

— Industriaguneak eta teknologia-parkeak eraikitzeko proiektuak

2. Ebaluaziotik salbuetsita egongo dira honako hauek:

— Funtsezkoak ez diren aldaketak egiten direnean planetan edo proiektuetan.

— Hizkuntza-inpakturik eragiten ez duten planak onartzean eta proiektuei baimena edo gaikuntza ematean.

— Aurrez hizkuntza-ebaluazioa izan duen plan batetik eratorritako proiektuak, berariaz oinarrizko proiektuak kontrakorik esaten ez duen kasuetan izan ezik.

3. Aurreko apartatuan adierazitako kasuei dagokienez, egoera horren berri jasotzen duen txosten bat erantsi beharko da planei edo proiektuei onarpena, baimena edo gaikuntza emateko funtsezko espedientean.

4. Udalerriko ELE Batzordeak irizten badio zerrendatutako planez edo proiektuez gain beste plan edo proiektu batek eragina izan dezakeela, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egingo da.

*6. artikulua. Udal-eskumenekoak ez diren planak eta proiektuak.*

Udal-eskumenekoak ez diren eta beste administrazio publiko batzuek onartzekoak diren planei eta proiektuei ere egingo zaie hizkuntza-inpaktuari buruzko ebaluazioa.

Udalerriaren egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen udalerriz gaindiko proiektuak eta planak onartzeko prozeduran, planak eta proiektuak ebaluatzeko eskumena daukan ELE Batzordeak aztertuko du hizkuntza-inpaktua.

Ondorioz, ebaluatuko diren egitasmo guztiak udal-mailakoak izango dira, nahiz eta beste erakunde publikoek sustatu. Kasu horretan ere Tolosako Udalak egin beharko du ebaluazioa, eta azterketaren ondorioen berri emango dio udalerriz gaindiko plana egitea dagokion erakundeari.

*7. artikulua. Udalerri barruan arnasguneak izendatzea eta horien trataera berezia.*

Printzipio orokorrak aintzat hartuta, arnasguneak zaindu nahi ditu ordenantza honek, eta tratamendu berezia eman.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

Horrenbestez, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteari dagokionez, udalerrian arnasgune izaera duten eremuak identifikatuko dira. Horretarako, oinarritzat hartuko da 179/2019 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoa, eta euskararen ezagutza % 80tik gorakoa duten biztanleria-entitateak izendatuko dira arnasgune. Lehen eranskinean jaso dira.

Arnasgune izendatutako eremuetan plan eta proiektu guztien ebaluazioa egingo da, eta, Irismen-dokumentua egiterakoan, eremu horretako datu soziolinguistikoak hartuko dira oinarri.

*8. artikulua. ELE Batzordea izendatzea.*

Tolosako Udalak batzorde parekide bat izendatuko du planen eta proiektuen eragin linguistikoaren ebaluazioaz arduratzeko, eta eskumena aitortuko dio udalerrian garatuko diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren gaineko erabakiak hartzeko. Batzordeari ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatuko zaio, eta kide hauek osatuko dute, gutxienez:

— Euskara eta Euskaltegia Azpisaileko zinegotzi delegatua.

— Euskara eta Hezkuntza Saileko zerbitzuburua edo Hizkuntza normalizatzailea.

— Ebaluatzen den egitasmoaren inguruko arloko udal-teknikaria.

— UEMAko teknikaria.

Kontuan hartuta zer dioen 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, neurri egokiak hartuko dira ELE Batzordean emakumeek eta gizonek presentzia orekatua izan dezaten (sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza).

*9. artikulua. ELE Batzordearen egitekoa.*

ELE Batzordea arduratuko da ziurtatzeaz udalerrian garatuko diren planei eta proiektuei egingo zaiela eragin linguistikoaren ebaluazioa. Horretarako, udalerrian abian jarri nahi diren planen eta proiektuen jarraipena egingo du. Horien berri izan bezain laster, plana edo proiektua garatzen hasi aurretik, organo sustatzaileari aholkatuko dio euskararentzat mesedegarriak diren funtsezko alderdiak zeintzuk diren, eta horiek jasotzeko gomendioa egingo dio.

Behin plan edo proiektuaren aurrerakin txostena egina dagoenean, ELE Batzordeak Irismen-dokumentua egingo du, eta erabakiko du hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

behar ote den.

Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin behar dela ondorioztatuz gero, ELE Batzordeak erabakiko du azterlana nork idatziko duen.

Dena dela, inpaktuaren azterlanaren azken erabakia Udalarena izango da. Horregatik, inpaktuaren azterlana egiteko metodologiak eskatzen dituen galdetegiak betetzeaz, neurri zuzentzaileak proposatzeaz eta azken erabakiak hartzeaz ELE Batzordea arduratuko da.

Inpaktuaren azterlana kanpoko enpresa batek egingo balu, ELE Batzordeak, azterlan hori oinarri hartuta, erabakiko du plana edo proiektua bideragarria den bere horretan, beste neurri zuzentzaile batzuk proposatu behar diren edo kontrako txostena egingo duen.

*10. artikulua. Prozedura.*

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko, oinarritzat erabiliko da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta UEMAk landutako metodologia. Prozedura hau izango du ebaluazioak:

1. Hizkuntza-azterlanaren irismena zehaztea.

Irismen-dokumentua egitea izango da lehen pausoa. Aztertzen denean plan edo proiektu batek eraginik eduki ote dezakeen udalerrian edo aztergai den eremuan, kontuan hartuko dira adierazle hauek:

a) Aldaketak biztanle-kopuruan.

b) Aldaketak bisitari-kopuruan.

c) Bestelako eraginak egoera soziolinguistikoan.

Sumatzen bada aztertutako plan edo proiektu batek eragin nabarmena izan dezakeela hizkuntzaren erabileran, horren berri emango zaio ELE Batzordeari.

Baldin plan edo proiektuaren irismenari buruzko proposamenak ondorioztatzen badu ez dagoela hizkuntza-inpaktu esanguratsurik, hizkuntza-inpaktuaren azterlanik ez egiteko gomendatuko du. Aitzitik, hizkuntza-inpaktu esanguratsua dagoela ondorioztatzen badu, beharrezkotzat joko du hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.

2. Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.

Honako puntu hauek jasoko ditu azterlanak:

a) Planaren edo proiektuaren azalpen orokorra, eta garatzeko beharko den denboraren gaineko aurreikuspena.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

b) Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatearen kalkulua. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, ELE galdetegia beteko da. Aldagai hauek hartuko dira kontuan:

— Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.

— Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-gaitasuna.

— Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-erabilera.

— Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.

— Eraginpeko eremuko hizkuntza-paisaia.

— Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.

c) Funtsezko alderdiei buruzko azterketa. Horretarako, ELE galdetegia beteko da. Aldagai hauek hartuko dira kontuan:

— Plan- edo proiektu-motaren ezaugarriak.

— Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioak.

— Kokapena.

— Hizkuntza-erabilerari buruz planteatutako irizpideak.

d) Konpentsazio-neurriak.

e) Neurri zuzentzaileak.

Ahal den heinean, azterlanean jasotako datuak sexuaren arabera bereiziko dira.

3. Informazioa jendaurrean jartzea, interesdunei kontsulta egitea eta entzunaldia.

1. Hizkuntza-inpaktuaren azterlana behin betiko onartu aurretik, jendaurrean jartzeko izapidea egingo da, hasierako onespenarekin batera

2. Jendaurreko informazioaren izapidea egiten den bitartean, Udalak kontsulta egingo die Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailari eta interesdunei. Kontsultak jakinarazpen baten bidez egingo dira, honako informazio hau gutxienez adierazita:

a) Hizkuntza-inpaktuari buruzko azterlana, edo non kontsultatu daitekeen.

b) Txostenak eta ebaluazioak zer organori bidali behar zaizkion.

c) Planaren edo proiektuaren gaineko informazio garrantzitsua eskuratzeko modua.

3. Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailak hogeita hamar egun baliodunek o epea du Udalak egindako hizkuntza-azterlanaren gainean txosten bat egiteko, 179/2019 Dekretuan zehazten denez. Era berean, interesdunek epe bera izango dute alegazioak formulatzeko. Epea zenbatzen hasiko da

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

jakinarazpena hartzen den hurrengo egunetik aurrera.

4. Hamar egun balioduneko epean entzunaldia emango zaio sustatzaileari, baldin pertsona pribatua bada, eta interesdunei ere bai, horrelakorik badago. Epea zenbatzen hasiko da informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailari eta interesdunei kontsultak egiteko izapidea amaitzen denetik aurrera. Jasotako txostenak eta alegazioak bidaliko zaizkio ELE Batzordeari, jakinaren gainean egon dadin.

4. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena.

1. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostenean datu hauek, gutxienez, bilduko dira:

a) Planaren edo proiektuaren sustatzailea edo funtsezko organoa zehaztea, eta planaren edo proiektuaren deskribapena.

b) Informazioa jendaurrean jartzeko eta Eusko Jaurlaritzan hizkuntza-normalizazioaren arloko eskumena duen sailari eta interesdunei kontsultak egiteko izapideen emaitzen laburpena, bai eta horiek kontuan hartzeko moduaren azalpena ere.

c) Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaz arduratzen den udal-organoak egin duen azterketa teknikoaren laburpena.

d) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko ezarri beharko liratekeen baldintzak eta neurriak, beharrezkoa denean.

e) Jarraipena egiteko sistema eta, beharrezkoa bada, jarraipen-batzordea.

2. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena egiteko epea hilabetekoa da, kontsultarako epeak amaitutakoan zenbatzen hasita. Plana edo proiektua onartzeko funtsezko prozedura amaitu aurretik, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena erantsi beharko da.

3. Honako erabaki hauek har daitezke:

— Aldeko txostena.

— Aldeko txostena, neurri zuzentzaileekin.

— Aurkako txostena, proiektua aldatzeko edo egokitzeko eskatuz.

Prozeduran zehar sortutako dokumentuek zaindu egingo dute hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta emakumeen irudia sustatzea, kontuan hartuta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren, eta genero-rol eta -

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

identitateen aniztasunaren balioak.

*11. artikulua. Neurri zuzentzaileak edo aringarriak.*

Ebaluazioaren emaitzaren arabera, beharrezkoa balitz, ondoren zerrendatzen diren neurri zuzentzaileak hartzeko aukera izango da, besteak beste:

1. Proiektuaren edo jardueraren izaerari lotutako neurri zuzentzaileak:

a) Harremanak erdigunean jarriko dituzten neurriak: bertako herritarrekin harremanak garatzeko gune komunitarioak indartzea, etxebizitzen sarbidea oinezkoen espazioetatik egitea, familia bakarreko edo dorre itxurako etxebizitzen ordez ingurura egokituak egitea, eta abar.

b) Zerbitzuen kudeaketa pribatua izanez gero, Udalarekin hitzarmenak egitea aurreikustea.

c) Kultura-, kirol- eta hezkuntza-zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinaren kudeaketa publikoa izatea.

d) Herritarren talde guztientzako lan-aukerak sustatzea.

e) Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzea.

f) Erabiliko diren irudi eta leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatzea.

g) Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea helburuen artean.

2. Proiektuaren edo jardueraren dimentsioari lotutako neurri zuzentzaileak:

a) Proiektuaren tamaina murriztea, esate baterako, etxebizitzen kasuan, auzo/herri/eskualdearen beharretara neurriratzea hazkundea.

b) Proiektuaren iraupena denboran luzatzea (adibidez, etxebizitza guztiak aldi berean egin beharrean, fase ezberdinetan egitea).

c) Tokiko beharretara egokitutako ekipamenduak aurreikustea.

d) Garrantzi naturala, historikoa edo kulturala duten lekuak babestea edo hobestea.

f) Espazio publiko irekiak eremu askotan sakabanatzea aurreikustea.

g) Tokiko beharretara neurriratutako lanpostuak sustatzea.

h) Bisitari-kopuru jasangarria sustatzea, turismoa hizkuntza gutxituetako herrialdeetan sustatzea.

3. Proiektuaren edo jardueraren lekukotzeari lotutako neurri zuzentzaileak:

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

a) Euskararen ezagutzan eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea.

b) Proiektu osoa leku berean garatu ordez, eremu batean baino gehiagotan sakabanatzea.

c) Erabileran eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea.

d) Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk inguruan izatea; adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte-kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak.

e) Enpresa berriak eraikiko badira, euskararen hauskortasun txikiko guneetara bideratzea.

g) Bisitariak hauskortasun txikiko guneetan jasotzea aurreikustea.

h) Antzeko beste neurri batzuk.

4. Hizkuntza-irizpideei lotutako neurri zuzentzaileak:

a) Proiektuaren iragarkiak tokiko eta euskarazko hedabideetan egitea lehenestea.

b) Kontratatutako langileak euskaldunak izatea.

c) Hizkuntza-erabilerarako irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez.

d) Euskara-plana edo -ziurtagiria duten hornitzaileak lehenestea.

e) Hizkuntza-paisaiari dagozkion irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez eta beste hizkuntzak beharrezkoa den kasuetan erabiliz.

f) Bertako toponimia erabiltzea.

g) Komunikazio-irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanez.

h) Euskarazko eskaintza edo eskaintza elebiduna bermatzea.

i) Antzeko beste neurri batzuk.

5. Aurreko ataletako neurri zuzentzaileez gain, aurkeztutako proiektu edo jardueren gainean honako neurri osagarri eta aringarri hauek ezar daitezke:

a) Herritarren ahalduntze linguistikoa eta formazioa lantzea.

b) Aisialdiko kultur eta kirol-eskaintza osoa euskaraz garatzea.

c) Etorri berrientzat integraziorako neurriak eta planak garatzea.

d) Euskara ikasteko erraztasunak ematea herritarrei.

e) Etorri berrien euskalduntzea eta beharrezko errefortzua bermatzea.

ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171

f) Harrera-planak egitea.

g) Mintzapraktikako programa garatzea.

h) Sentsibilizazio eta motibazio-kanpainak egitea.

i) Euskaraz aritzeko doako zerbitzuak eskaintzea (adibidez, itzulpenak).

j) Irizpideak betetzen ez direnerako isunak jartzea.

k) Antzeko beste neurri batzuk.

*12. artikulua. Dokumentazioa.*

Ebaluazioaren amaieran, gutxienez honako dokumentazio hau jasoko da:

— Irismen-dokumentua.

— Hizkuntza-inpaktuaren azterlana.

— Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioari buruzko txostena.

## I. ERANSKINA

*Arnasgune izendatzea.*

Ordenantza honen 3.4. artikuluari jarraikiz, arnasgune izendatzen dira Tolosako biztanleria-entitate hauek, herritarren % 80 baino gehiago euskaldunak baitituzte, Eustat estatistika-erakundearen 2021eko Biztanleriaren eta Etxebizitza Zentsuaren arabera:

— Bedaio.

— Aldabatxiki.

— Urkizu-Monteskue.

— Santa Lutzia.



EKS | CSV: ESKU315c64e7-bba5-4328-90cf-a15347d6f171
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2024IPLE0004-2024-03-27 Ohiko osoko bilkura akta/2024-03-27 Ohiko osoko |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: MARIA BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ - 15924469M
Data / Fecha: 2024/04/11 18:27:03

Sinatzailea 2 / Firmante 2: ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI - 72438134W
Data / Fecha: 2024/04/12 11:23:56